



Kultur elkarte berria "isiotu" dute Abadiñon

Abadiño • Abadiñoeko herritar talde batek Isiotu Kultur Elkarte sortu du. Kultur egitasmoen bitartez, "euskara, feminismoa, elkartasuna eta sexu askapena" lantzea dute helburu. Horretarako, gune bat zabaltzea aurreikusi dute, taberna bat Traña- Matienan. • 6




"Askotan besteak lasaitzeko izaten dira azalpenak, eta nik ez ditut horiek eman gura"

Kultura • Gaur inauguratuko dute Jone Ertzillaren 'E x 3' erakusketa Durangoko Arte eta Historia museoan; urriaren 23ra arte egongo da ikusgai. Museoan bost durangarrek egingo dituzte erakusketak, eta horietariko bat da Ertzilla. • 19

Udalak Plateruena zabaldu gura du urtea amaitu aurretik



Plateruena • Durangoko gobernu taldeak Platerueneko proiektuari buruzko azalpenak eman ditu udalbatzarrean. Besteak beste, kudeaketa publikoa eta komunitarioa uzartzeko duten ereduaren alde egingo dutela esan dute. • 5



Bueltan da Anboto Kilometro Bertikala

Kirola • Urte biko etenaldiaren ondoren, zapatu arratsaldean bueltatuko da Arrazolako lasterketa. Aurten Euskadiko txapelak banatuko ditu. • 21

Urriaren 31ra bitartean
URTEURREN ESKAINTZAK

SCHMIDT

Murueta Auzoa z/g
Eroski Merkatal Zentroa
48220 Abadiño
www.homedesign.schmidt

SUKALDEAK - ETXEA - BAINUGELAK



Asier Quintana Villa
Moda diseinatzailea
ZORNOTZA | 1997

"Moda japoniarra asko gustatzen zait eta oso presente dago nire sorkuntzetan"

Asier Quintana zornotzarra Kopenhagen dabil moda munduan lehenengo pausoak ematen. Bere kolekzio bat Vogue aldizkarian agertu da

ZORNOTZA • JONE GUENETXEA

Asier Quintana diseinatzaile zornotzarra lehenengo pausoak ematen dabil modaren industrian. Ikasketak Kopenhagen (Danimarka) egin ditu eta orain sektore horretan dabil lanean. Bere master amaierako proiektuko kolekzioa Vogue aldizkari ezaguneko kaleratu dute. Errekonozimendu handia hasiberria den sortzaile batentzat.

Zelan heldu da zornotzar gazte bat Kopenhagera moda ikastera?

Orain dela hiru urte etorri nintzen Kopenhagera, masterra ikastera. Iazko ekainean amaitu nuen master hori.

Zelan erabaki zenuen zure ikasketak modaren arlora bideratzea?

Etxean beti ikusi izan ditut arropari loturiko ogibideak. Nire familia Balmasedakoa da eta amama jostuna zen. Tailer bat zeukan. Izekok ere moda ikasi zuen, gaztea

zenez. Niri ere betidanik gustatu zait. Zentzuzkoa iruditu zitzaidan neu ere bide horretan hasia.

Kopenhagera joan aurretik, non ikasi duzu?

Bilboko INEDI eskolan ikasi nuen. Lau urteko karrera egin nuen bertan, eta, gero, Europako herrialderen batean master bat egiteko gogoia izan nuen. Esperientzia hori bizi gura nuen. Kopenhagekoak itxura ona zuen eta horregaitik etorri nintzen hona.

Zure espektatibak bete egin ziren Kopenhagen?

Masterra esperientzia gazi-gozoa izan da, COVIDaren eraginez. 2019an heldu nintzen eta masterraren bigarren zatian COVIDA heldu zen. Zati bat etxetik egin genuen.

Masterreko ikasleek desfilea antolatu zenuten, bakoitzak prestaturiko proiektuagaz.

Gelakideok desfilea antolatu genuen Kopenhageko moda astean, joan zen ekainean. Hamasei ikasle izan ginen. Bakoitzak bere proiektua aurkeztu zuen. Nirea *Logela* proiektua izan zen.

Zelan heldu zen desfile hori Vogue aldizkariara?

Desfileak oso harrera ona izan zuen. Vogue aldizkariako argazkilaria bat bertan izan zen eta gure desfilea aldizkari horretan atera zuten. Esperientzia harrigarria izan da. Lan handia egin genuen desfilea antolatzen, eta errekonozimendu hori jasotzea pozgarria izan da. Atzetik etorri direnzentzat ere garrantzitsua izan da. Moda industria ikasleei eta sortzaile berriei begira dagoela ikusteak ilusioa egin zigun.

Enpresa txikiek pedagogia egitea gustatuko litzaidake, kontsumitzaileek ikusi dezaten zenbat lan dagoen arropa baten atzean

Zelan definituko zenuke zuk sortzen duzun arroparen estiloa?

Logela oso proiektu berezia izan zen. Masterraren tesia performance artearen inguruan idatzi nuen. Beraz, hau guztia *Logelaren* inguruko emozioei buruzko hausnarketa

da, performanceagaz lotuta. Formekin, oihalekin eta asimetriekin esperimentatzea gustatzen zait. Diseinatzaile japoniarrak ditut buruan, moda abangoardista horretan murgiltzea gustatzen zait. *Logelaren* kasuan, arropa guztiak beltzez egin nituen. Kolekzio horrek nire estiloa definitzen du, baina nire estiloa hori baino zabalagoa da. Ez nuke gura behin sorturiko diseinu batzuek etorkizunean egingo dudana definitzea. Nire estiloagaz esperimentatzen nabil.

Nortzuk dira zure erreferenteak modan?

Moda japoniarra asko gustatzen zait eta oso presente dago nire sorkuntzetan. Baina beste diseinatzaile batzuk ere badituzt gustuko: Jean

Paul Gaultier, Alexander McQueen, Hussein Chalayan... Guztiek narritiba bat sortzeko erabiltzen dute moda, zeozer kontatzeko. Espresibitate zehatz batez lan egiten dute. Gizartea ulertzeko eta testuinguru zehatzen hausnarketak egiten dituzte.

Moda industriaren sektore batek neurri bako kontsumoa bultzatzen du. Gogoeta egin beharko litzateke kontsumo hori jasagarria izateko?

Enpresa txikiek pedagogia egitea gustatuko litzaidake, kontsumitzaileek ikusi dezaten zenbat lan dagoen arropa baten atzean. Kontzientzia hori garatu beharko genuke, kontsumo jasagarriagoa izan dadin eta sektoreko langileen bizi baldintzak hobek izan daite-



Asier Quintanaren desfile bateko diseinuak.

zen. Baliabideak mugatuak dira. Bestalde, mundu guztiak ez du baliabiderik oso arropa garestia erosteko. Badakit egoera konplexua dela. Egia esan, mundu guztiak ez du baliabiderik moda jasagarria kontsumitzeko. Ertz asko duen gaia da.

Azken urtean denerik egin dut: enkarguak, jostun lana, praktikak moda enpresa batean...

Arropa modu kontzienteagoan erosi beharko litzateke?

Modan, egutegiagaz du lotura horrek. Modaren oinarrian urtean garai bi daude, eta modaren industria garai horietara egokitzen da. Horrek presio bat sortzen du enpresetan, hile zehatz batzuetarako atera behar delako kolezioa. Sasoi horiek malgutzera ere interesgarria izan liteke. Bestalde, armairu aldaketari dagokionez gogoeta egin beharko genuke. Zergaitik aldatu behar dugu armairuko arropa birritan edo hiru bider urtean? Gure aitita-amamek arropa gutxi zuten, baina, orokorrean, modis-

tek egindakoa zen. Dirua apur bat aurreztu eta behar zutena erosten zuten. Erosketa kontzienteagoa zen, beharizanen arabera.

Enpresa txikiak beste modu batean funtzionatzen hasi dira.

Enpresa txiki askok enkarguz lan egiten dute. Jaka baten prototipoa dute eta erosten duzun momentuan sortzen dizute. Bitik lau astera bitartean itxaroten baduzu, bidali egiten dizute. Moda ekoizteko modu jasagarriagoa da, ez duzulako behar den baino gehiago ekoizten. Momentu honetan martxan dagoen sistemak ez du zentzurik.

Zein proiektu duzu esku artean gaur egun?

Azken urtean denerik egin dut: enkarguak, jostun lana, praktikak moda enpresa batean... Hemengo enpresaren batean lanen bat lortu gura nuke, etorkizuneko proiektu bat martxan jarri aurretik esperientzia izateko. Nire proiektuetan ere banabil. Kolezio bat prestatzen nabil, baina ez dakit noiz kaleratuko den. Neguan ateratzea gustatuko litzaidake.

Epe luzera, zure proiektu propioan lan egitea gura zenuke?

Proiektu pertsonal bat izatea gustatuko litzaidake, baina ez da zertan nire marka pertsonala izan. Kolektiboki sortu dezakegun enpresa bat izan daiteke.



Asier Quintanaren diseinuak.

Durangaldeko albisteak jaso gura dituzu?



Bidali ALTA
688 635 041
telefono zenbakira

Batu Anbotoko
Whatsapp taldera!



anboto

“Euskal Herrian betidanik ospatu da Arimen Gaua, Halloween bera baino lehenagotik”

Aritz Lilik (Laudio, 1987) Gaba Baltzari buruzko berbaldia eman du, Berbaroren eskutik



DURANGO • EKAITZ HERRERA

Gozoki-eskea, mozorroak eta kalabazak. Domusantu bezperako gauaz, Halloween ospakizuna nagusitu da azken urteotan. AEBetatik inportatutako jai delako eman dezake, baina Aritz Lili Lekandak argi dio ospakizunaren oinarria betidanik ospatu dela Euskal Herrian. Hori dela eta, Gaba Baltza betiko eran ospatzea aldarrikatu du, “Halloween jaiaren ezaugarri kontsumistak alboratuta”. Aditua barik aritua dela dio Lilik, eta orain urte batzuk gida pedagogikoko bat kale-ratu zuen gaia eskoletan lantzeko.

Argi diozunez, Halloween ailegatu baino lehenago Euskal Herrian ere baziren domusantu bueltako jaiak, Arimen Gaua, adibidez.

Bai. Euskal Herrian betidanik ospatu den jai da. Egia esan, Halloween zinematik, AEBetatik, jaso dugun zerbait da eta euskaldunok hori ospatzeari uko egin diogu, “jai hori ez da gurea”, esanez bezala. Baina herritar edadetuengana testigantza eske jotzen badugu, ikusiko dugu Euskal Herrian aspal-

didanik egon direla horrelako ospakizunak, Halloween baino lehenagotik. Jaiak hartu-eman handia du naturagaz, eta ia herri guztietan ospatu izan da. Halloween bera ere jai zelta da, Eskozian sortu zen. Hortik AEBetara eraman zuten eta bere modura garatu da han. **Non ikusi dituzue Euskal Herrian horrelako ohiturak egon diren ebidentziak?**

Domusantu garai honetan, Euskal Herriko hainbat bazterretan zeuden elementu amankomunak. Adibidez, beldurraren bueltakoak. Herri batean baino gehiagotan aipatu dizkigute. Gauaren eta beldurraren zera hori, arimekin eta amesgaiztoekin lotuta dagoen mundu hori. Mozorroa bera ere beldurragaz lotuta dago. Egun horretan gu geu ez izate horregaz, aurpegia estaltze horregaz. Beste elementu bat kalabaza da. Testigantzetan jaso dugunez, umek kalabazak osten zituzten ortuetatik. Hustu eta kandelak ipintzen zituzten, gerizpeekin beldurra eragiteko. Hau guztia naturaren zikloekin lotuta dago, data hauetatik

aurrera natura lozorroan sartzen delako, nolabaiteko hiltze batean. Hortik dator jaiaren zentzua.

Zein lekutan topatu dituzue testigantzok?

Gure eskualdeari dagokionez, Orozkon eta Artziniegan. Baina Eibarren, Berrizen eta Mutrikun ere bai. Mutrikun oraindino ere ospatzen dute arimen jaiak.

Arimen Gaua hemengo eran eta eredu kontsumistatik kanpora ospatzea aldarrikatzen duzu.

Oso mozorro prestatuak erostea eta gozokiak gaztelaniatzko kantuekin eskatzea da Halloween jaitik jaso duguna. Guk baztertu egiten ditugu horiek. Lehen, ez zuten ezer erosten beldurra eragiteko. Etxeko arropa zaharrak hartuta mozorrotzen ziren, trapu zaharrek egiten zuten gu geu ez izate hori. Gozokiak eskatzeagaz ere berdin. Lehen, etxerik etxe kantuekin joaten ziren eta denak ez du zertan gozokia izan. Sagarrak zein fruitu sikuak eskatu daitezke. Horixe da aldarrikatzen duguna, kontsumo eredu horretatik aldentzea.



Xabier Loyarte, Urko Rodriguez, eta Iker Gomez de Segura.

Eguzki plakak instalatuta, autokontsumoaren bidea hasi dute Kurutziaga eta Ibaizabal ikastoletan

Ikastetxeetan ipinitako plaka berriei eskerrak, energiaren %25 aurreztuko dute Kurutziagan, eta %33 Ibaizabalen

DURANGO • IGOR GALARZA

Kurutziaga eta Ibaizabal ikastolek energia berriztagarrien aldeko apustuagaz hasi dute ikasturtea. Udako etenaldia aprobetxatuta, eguzki plakak instalatu dituzte eraikinetako teilatuetan, eta gaur egun ikastetxeetan kontsumitzen den energiaren zati batek jatorri berrerabilgarria du. Gauzak horrela, Kurutziaga ikastolan energiaren %25 eguzki aurreztuko dute plakei eskerrak. Ibaizabalen kasuan, %33 aurreztuko dute. “Balio eta ideia asko ikastolen nortasunaren parte dira berauek sortu zirenetik, eta gaur egun ere filosofia horregaz jarraitzen dugu”, adierazi du Iker Gómez de Segura Ibaizabal ikastolako arduradunak. Urko Rodríguez Kurutziagako zuzendariak, bere partetik, “ikastolen iraunkortasunaren aldeko ahalegin lez” definitu du energia berriztagarrien aldeko apustua. “Erantzukizun bat dugula uste

dugu eta horri erantzun gura izan diogu”, gaineratu du.

Goienar, bidelagun

Bai Kurutziaga ikastolak eta bai Ibaizabal ikastolak Goienar irabazi asmorik bako energia kooperatibagaz landu dute proiektua. “Filosofia bateratu batean” gauzatu dute obra, Urko Rodríguezek adierazi duenez. Bestalde, Goienarreko kide Xabier Loyartek adierazi du euren proposamena “ohiko merkatu merke horretatik kanpora” dagoela. Alde horretatik, “plaka fotoboltaikoen bidea energia demokratizatze bidea” dela iritzi dio. Iker Gómez de Segurak “autokontsumoaren eta energia propioa sortzearen” balioa azpimarratu du. Kontsumo eragin-korrako bat sortzeko doikuntza lanak eginda, etorkizunean energia gastua murriztea eta aurrezpen ekonomikoa ekartzea gura dute.

anboto

Bixente Kapanaga, 9
48215 Iurreta - Bizkaia
Tel.: 946 816 558

Erredakzioa: 946 232 523
Publizitatea: 946 217 902
publi@anboto.org

2022ko irailaren 30a
20. urtea - 907. alea

Lege gordailua:
BI-2268/01
ISSN:
1578-7028
Tirada:
12.000 ale

2015 **Bikam**

PEFC
www.pefc.es

Bizkaia
foru aldundia
diputación foral

Aldizkari honek Bizkaiko Foru Aldundiaren laguntza jaso du



EUSKO JAURLARITZA

GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA

DEPARTAMENTO DE CULTURA
Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak diruz lagundua

Durango Udalak urtea amaitu aurretik edo datorren urte hasieran zabaldu gura du Plateruena

Gobernu taldearen iritziz, izaera publikoa eta komunitarioa batzen dituen ereduak izan daiteke kudeaketarik egokiena

DURANGO • JOSEBA DERTEANO

Durango EAJk Plateruenean hasitako prozesua amaitzea eta azpiegitura zabaltzea eskatu dio gobernu taldeari asteon egindako plenoan. Gobernu taldeko kideek erantzun dute urtea amaitu aurretik zabaldu gura dutela Plateruena. EH Bilduko Iker Urkiza zinegotziak adierazi duenez, "abenduan

zabaltzen ahaleginduko gara, Durango Azokako Ahotsenea egin eta gero, eta ezin bada, 2023 hasieran". Plateruena 2020ko abenduaren 31n zarratu zituen atek. Handik gutxira, Durango hainbat herritarrek eta kultur eragilek gidaturiko 'Plateruena eta gero zer?' dinamika loratu zen. Prozesu parte hartzaile hartan,

Plateruenerako proposamen bat diseinatu eta udalaren mahai gainean ipini zuten. Udalak berak beste parte hartze prozesu bat ipini zuen martxan. Bitarte horretan, udala proiektu berriak hartu beharko lukeen izaera juridikoa aztertzen ibili da, beste kultur gune batzuetako ereduak aztertzen. Orain, hiru eredu baloratzen da biltza Plateruena kudeatzeko: kudeaketa zuzena (udalak kudeatua), zeharkakoa (kontsezio bidez) eta partekatua, hau da, publiko-komunitarioa. "Azken hori da prozesu parte hartzaileetan jasotakoak ondoen islatzen dituen. Eredu horri forma ematen gabilta", azaldu du Urkizak.

Bestalde, gobernu taldeak 313.000 euroko diru atala gorde gura du Plateruenerako 2023ko aurrekontuetan.



Plateruena 2020ko abenduaren 31tik dago zarratuta.

Durango eta Montevideok senidetze eta lankidetzaren hitzarmena sinatu dute

Uruguai hiriburuko ordezkari bat Durangora etorri da hartu emanak lantzerako



Sinatze ekitaldia martitzenean egin zuten.

DURANGO • EKAITZ HERRERA

Sofía Espillar Montevideoko Departamenduko Batzordeko presidentea eta Ima Garrastatxu Durango alkateak senidetze eta lankidetzaren hitzarmena sinatu dute asteon. Ekitaldian, Durango ordezkari politikoa duten alderdi guztiek eta Montevideotik ailegaturiko delegazio batek parte hartu dute. Garrastatxuk adierazi du hitzarmena gaur egungo betaurrekoekin hasiko dutela, "kolonialismoa atzean utzita" eta "feminismoa" zein "jasangarritasunean" eraginda. Ituna "lehenetsua" eta "funtsezkoa" dela adierazi du Espillarrek. "Hitzarmena historikoa da, Montevideoko Departamenduko Batzordeak Europan egiten duen lehenengo senidetzea delako. Ohore bat da Europako lehenengo senidetze hori Euskal Herrian egitea", gaineratu du.

Durango jaiak indarberrituta datoz, 175 ekitaldi baino gehiagorez

Jai batzordeak ekitaldiak auzo guztietara eta behar bereziak dituztenengana helarazteko ahalegina egin du

DURANGO • EKAITZ HERRERA

2019ko 110 ekitaldiak atzean utzita, 175 bat ekitaldi egongo dira aurten Durango jaietan. Nobedade modura, honako ezagarrak hauek daude: ekitaldiak auzo guztietara zabalduko dituzte eta irisgarritasun arazoak dituztenak eta egoitzetan daudenak gogoan hartuta, txupinazo na-

gusia Internetez eskainiko da, streaming bidez. Formula hori Egan eta Los Cinco Bilbaínos taldeen emanaldiekin ere erabili gura du udalak. Bestalde, Patxikotxu eta txosna batzordeko Pantxike pertsonaiak batera egongo dira txupinazoan, lehenengoz. Informazio eta egitarau osoa anboto.org atarian kontsultatu daiteke.



Jai batzordeko kideak, txosna batzordekoak eta udal agintariak.

Mozorro eguna, dantzariak eta azoka sanmigeletan

Iurretarek eguaztenean hasi zituzten herriko jaiak



Doniel Atxa jasotzea tradizio da herrian eta jende asko batzen du.

IURRETA • AITZIBER BASAURI

Egunotan jai giroan murgilduta daude Iurretan, eta Jai Batzordeak hainbat ekitaldi antolatu du asteburuari begira. Gaur arratsaldean umeentzako jolasak eta ginkana egongo dira, eta iluntzerako tortilla txapelketa eta erromeria antolatu dituzte. Bertso jaiak eta kontzertuek osatuko dute eguna. Bihar mozorro eguna izango da, herri bazkariak, erromeriak eta musikak borobildutako eguna.

Domekan agurtuko dituzte jaiak, baina aurretik nekazaritza azokaz eta dantzarien saioaz gozatzeko aukera egongo da.

Iurretarek eguaztenean eman zieten hasiera jaiak. Azken 50 urteetako ohiturari jarraituz, txapligoak jaurti zituzten Montoitik. Aurten, zazpi; sei herriko kofradien izenean eta azkena herritik kanpora dauden iurretarren izenean. Arratsaldean, Doniel Atxa jasotzeko batu ziren plazan.

“Isiotu elkarteak tresna bat izan gura du kultur egitasmoen bitartez euskara, feminismoa edo elkartasuna lantzeko”

Abadiñon kultur elkarte berria eratu dute: Isiotu. Orain, gune bat atondu gura dute elkartearen balioak lantzeko eta proiektua bultzatzeko



Irati Bazeta, Iliá Vázquez eta Asier Aspuru.

Abadiñon, eta "gune bat" zabaltzea ere aurreikusi dute.

Zergaitik erabaki duzue Isiotu kultur elkarte sortzea?

Asier Aspuru: Konfinamenduan sortu zen ideia, lagun baten etxean geundela. Zeozer egiteko gogoia genuen, ekitaldi kulturalak antolatzea, herrian eragiteko. Eta kultur elkarte bat sortzea horretarako proposa izango zela pentsatu genuen.

Iliá Vázquez: Bai, horren falta igartzen genuen. Berbaldi interesgarriak, kontzertu txikiak, gazteentzako egitarau bat, artista berrientzako aukerak... horrelakorik ez dago. Eta ez dagoenez gero, geuk sortzea pentsatu dugu. Horrela sortu dugu Isiotu Kultur Elkarte.

A.A.: Isiotu izena ere hortik hartu dugu. Herria piztearen, kultura piztearen, kontzeptu hori plazaratu gura dugu.

Nortzuek osatzen duzue taldea?

Irati Bazeta: Elkarte antolatu dugunon artean denerik dago. Herriko hainbat auzotatik gatozen kideak gara, Traña-Matienatik, Zelaietatik,

Gazteluatik... Eta bakoitzak bere ibilbidea dauka. Gutariko batzuk, adibidez, mugimendu feministan gabilta, beste batzuk presoan aldeko mugimenduan, txosna batzordean,... baina horiez gainera kide gehiago gara. Elkarte beste kide batzuk mugimendu euskaltzaleetatik datoz. Sexu askapenaren aldeko mugimenduetatik ere bai. Gazteagoak gara batzuk, ez hain gazteak beste batzuk,... denerik dago (barrez).

Eguaztenean Txanporta kultur etxean aurkeztu zenuten elkarte. Gune bat ere zabaltu gura zenutela komentatu zenuten.

I.B.: Bai, lantzen gabiltzan zeozer da. Gure asmoa elkartearen balioak lantzeko eta kultur ekitaldiak egiteko gune bat zabaltzea da. Traña-Matienako garai bateko Maitena taberna daukagu begiz jota. Gure beharrianak ase ditzakeela uste dugu. Horregaitik, taberna zabaltu ahal izateko, laster karpina ekonomiko bat ipiniko dugu martxan, itsulapikoa.eus edo goteo.org atarian. Bakoitzak gura duen

ekarpina egin ahalko du bertan. Laster emango dugu horren berri. Bestalde, kuriositatea duenak edo informazioa gura duenak isiotu-kulturelkartea@gmail.com helbidera idatzi dezake.

I.V.: Gune hori irekia eta herritarrekin konpartitua izatea gura dugu, balio horiek zabaltzeko eta partekatzeko. Mugimendu feministak batzar bat egiteko lekua behar duela? Hor dauka Isiotu. Berbaldi interesgarri bat antolatu gura dugu? Hor dago Isiotu. Azkenean tresna bat izan gura dugu kultur egitasmoen bitartez feminismoa, euskaltzaletasuna, sexu askapena edo elkartasuna lantzeko.

A.A.: Bai, topagune bat izango da, erreferentia izango den gune bat. Izan ere, Abadiñon ez dago horrelakorik.

Gune hori noiz zabaltzea aurreikusi duzue?

I.B.: Oraindik ez daukagu data finkorik. Lantzen gabiltzan zeozer da. Baina urtea amaitu aurretik, azaro bueltan edo, Isioturen gunea zabalik egotea gura genuke.

ABADIÑO • MAIALEN ZUAZUBISKAR

Zelaietakoak, Traña-Matienakoak zein Gaztelua auzokoak dira Isiotu kultur elkarte osatzen duten kideak. Mugimendu feministako kideak dira batzuk, mugimendu euskaltzaleetan

sartuta dabilta beste hainbat, eta elkartearen badira ere euskal presoaren aldeko zein sexu askapenaren aldeko kideak. Orain, mugimendu horiek guztiek bat egin dute elkartearen. Kultur jarduerak antolatu gura dituzte

Elorrioko nagusien egoitzan lanak egiten dabilta bizikidetzaren unitate bihurtzeko

ELORRIO • MAIALEN ZUAZUBISKAR

Bizkaiko Foru Aldundiak jakinarazi duenez, Elorrioko egoitzan lanak egingo dituzte bizikidetzaren unitate bihurtzeko. Bizikidetzaren unitate bitan egituratu dute egoitza, eta horietariko bakoitzean 25 lagun egongo dira gehienez. Unitate bakoitzean 22 logela egongo dira (19 banako gela eta 3 gela bikoitz). Horrez gainera, denentzat diren eremuak berritu eta handitu egingo dituzte. Hobekuntza hauekin egoiliarrek etxe baten antzeko ingurunea izango dute.

Obrei dagokienez, Bizkaiko Foru Aldunditik adierazi dute lanak apurka egingo direla, bertan bizi diren lagunak eta profesionalak han daudela egingo beharko dituztelako. "Ildo horretatik, behar diren neurriak hartuko ditugu eragin daitezkeen kalteak minimizatzen", azaldu dute.

4,5 milioi euro ipiniko dituzte lan hauek egiteko, eta 2025. urte hasierarako amaitzea aurreikusten dute.

Elorrion sinadura bilketa hasi dute pediatria zerbitzu duin bat eskatzeko

Elkarretaratzerako deia ere egin dute; urriaren 21ean izango da elkarretaratzea, 18:00etan, plazan

ELORRIO • MAIALEN ZUAZUBISKAR

Elorrion sinadurak batzen hasi dira pediatria zerbitzu hobea eskatzeko. Sinadura bilketako arduradunek adierazi dutenez, Elorrioko egoera "kaskarra" da eta sarritan ez daukate pediatriarik. "Elorrion pediatriarik barik gaude askotan, eta inguruko osasun zentroetara bidaltzen gaituzte: Atxondora, Abadiñora edo Berrizera", azaldu dute Idoia Solanak eta Saray De Diosek.

Egoera horri amaiera emateko asmoz, Elorrioko zenbait guraso sinadurak batzen hasi da, eta dagoeneko 300 baino gehiago jaso dituzte. Datozen egunetan ere sinadurak batzen jarraituko dutela adierazi dute. Herriko eskoletan, dendetan eta tabernetan batuko dituzte, besteak beste.

Sinadurak batzeaz gainera, elkarretaratzea ere egingo du-

te. Urriaren 21ean izango da, 18:00etan, Elorrioko udaletxe aurrean.

Elorrioko Argi Gorriak taldeak herriko osasun zentroan mediku falta dagoela salatu dute

Argi Gorriak, salaketa

Bestalde, Elorrioko Argi Gorriak elkarteak salatu du azken asteetan egoera "jasangaitza" bizi zuten dabilzala herriko osasun zentroan, "mediku falta dela eta". "Osakidetzako murrizketek langileei eta erabiltzaileei eragiten diete, eta gure osasun publikoaren zerbitzuek klinika pribatuaren interesari erantzuten diete apurka", salatu dute.

Atxondoko Udalak 464.000 euro ipiniko ditu Jauregi berrurbanizatzeko

Apatako auzoa atseginago egin gura dute oinezkoentzat

ATXONDO • MAIALEN ZUAZUBISKAR

Datozen egunetan, Apatamonasterioko Jauregi auzoko lanak lizitatu eta auzoa berrurbanizatzen hasiko dira. Lan hauen helburua "abandonatuta" egon den auzoaren beharriari erantzutea dela azaldu dute gobernu taldeko kideek. Esate baterako, auzoa

oinezkoentzat atseginago egin gura dute. Berdegune zabalak egingo dituzte, pasealekuak, ur kanalizazio berria, autoentzako 55 aparkaleku, eta bankuak ipiniko dituzte. Udaletik jakinarazi dutenez, auzotarrekin prozesu bat gauzatu dute proiektua egiteko.



Apatamonasterioko Jauregi auzoa.

Domekara bitartean, San Migel jaiak ospatuko dituzte Berrizko Okango auzoan

Eguaztenean altxatu zuten Donien Atxa; zapatuan Habia taldearen kontzertua egongo da, 20:00etan

BERRIZ • A. M.

Berrizko Okango auzoa jaigiro betean murgilduta dago, izan ere, San Migel jaiak ospatzen dabilta bertan. Eguaztenean hasi zituzten jaiak, eta egitarau zabal bategaz dabilta ospatzen. Zapaturako, esaterako, umeentzako jolasak antolatu dituzte; 17:00etan izango dira. Horien ondoren, txirrindularitza lasterketa erraldoia egingo dute, eta arratsalde osoan zehar odolosteak jateko aukera egongo da. Egunari amaiera emateko, Habia taldeak kontzertua emango du.

Domekan, Berrizko Baselizetatik ibilaldia egingo dute; XXVI. edizioa da aurtengoa. Ibilaldiaren ondoren, Ireminë dantza taldearen txanda izango da, eta Berrizko bertso eskolako Kelmene Abaituak, Araitz Katarainek, Jasone Carballoek eta Irune Basagoitik bertsoan egingo dute.

Eguaztenean jaso zuten Donien Atxa auzoan, San Migel bezperan. Eguenean ere izan zuten zer egin auzokideek. Meza ostean, odoloste jana eduki zuten, eta baita bolo txapelketa ere.



Berrizko Okango auzoa.

Zaldibarko kirol jardueren zerbitzuaren esleipena zeresana ematen dabil

Udalak kirol zerbitzua lizitazio publiko irekira atera zuen maiatzean, eta herritar batzuek desadostasuna agertu dute



Herritar talde batek ipinitako kartela.

ZALDIBAR • A. M.

Zaldibarko Udalak kirol jardueretako zerbitzuaren kontratazioa lizitazio publikora atera zuen maiatzean, bere berbetan "2015etik zerbitzua legez kanpora" egiten egon ostean. "Kirol jardueren zerbitzua legez kanpora egin da indarrean dagoen araudiaren arabera, izan ere, kontratu txikiak (15.000 eurotik beherakoak urteko) bata bestearen atzetik eman direlako", azaldu zuen udalak ohar batean. Baina erabakiak hautsak harrotu ditu erabiltzaile batzuen artean. 2000. urtetik aurrera zerbitzu hori eskaini duen pertsonak "publizitatearik eta lehiarik barik"

egin zuen, udalaren esanetan. Baina pertsona horrek aurkakoa dio, "bere kabuz" eskaini dituela zerbitzu horiek. Lizitazioan, euskarazko B2 profilaren eskakizuna izan da beste gakoetariko bat. Langile horrek euskarazko klaseak jasotzen dituela argudiatu du, Ermuan (Bizkaia). Udalak, oster, eskakizunean euskarazko B2 profila eskatzea aho batez onartu zela nabarmendu du: "Udal gobernu honek ez du inoiz inor lanik barik utzi gura izan, eta legez eskatzen zaion modura jardutera mugatu da, kontratu bat publikitateagaz, lehia askeagaz eta aukera berdintasuna bermatuz".

Praktikatu Euskaraz Gurekin!

BERBA LAGUN

Berba lagun 639 400 786 
praktikatu.eus/blog/durangaldea
durangaldea@aek.eus

EMAN IZENA
DOHAINIK DA!






Okm: *batzen gaituen distantzia*

Egin zaitez anbotokide!

**> anboto
kide**

Okm:

*batzen gaituen
distantzia*



 **anboto**
kide

Abantailak

EUREKA! ZIENTZIA MUSEOA

- %10eko deskontua museoko eta planetarioko sarrera orokorrean, bai eta bietarako balio duen sarrera konbinatuan ere.

HITZ LIBURU-DENDA

- %10eko deskontua euskarazko liburuetan.

HONTZAEXTREM ABENTURA PARKEA

- %15eko deskontua sarreran

IURRETA KOPISTEGIA

- %5eko deskontua eskola eta bulego materialean.
- %5eko deskontua musika, opari eta liburuetan.
- Ez da bateragarria beste eskaintza batzuekin.

KIROL ERROTA GIMNASIOA

- Bazkide berriei matrikulazioa doan.

LANDAKO OPTIKA

- %15eko deskontua eguzkitako betaurrekoetan, audiologian, ikusmen urritasunean eta armazoi eta lenteetan.

MANCISIDOR 1866 BITXI-DENDA

- % 5eko deskontua 100€ra arteko erosketetan.
- %10eko deskontua 100€tik gorako erosketetan.

NATURALKI BELARDENDA-EKODENDA

- %5eko deskontua produktu guztietan.

URRIKE LIBURU-DENDA

- %5eko deskontua liburuetan
- % 10eko deskontua papergintzan

LA PERLA

- %15eko deskontua forman jartzeko talaso zirkuituan
- %10eko deskontua osasun, lasaitasun eta edertasuneko banakako tratamenduetan

NAHIA HORTZ KLINIKA

- %25eko deskontua garbiketa eta radiografiatan

"Txakurra inportantea da artzainarentzat; txakurrik ez badaukazu ardiak burla egiten dizu"

Aurelio Ercilla artzain mañariarrak merezitako omenaldia jaso zuen, joan zen asteburuan, Axpeko Artzain Egunean

MAÑARIA • JOSEBA DERTEANO

Bizkaiko Latxa eta Karrantzar Arrazetako Ardi Hazleen Elkarteak Artzain Eguna egin zuen, joan zen asteburuan, Atxondon. Bertan, Aurelio Ercilla Zugazti (Mañaria, 1937) omendu zuten, besteak beste. Ercillak artzain munduari eskaini dio bere bizitzako zatirik handiena.

Zenbat abentura biziko ote zenituen artzain zinela...

Eta zenbat kilometro egin! 300 bat ardigaz, inoiz 500 ere bai. Beti gureak, Bizkerre baserrikoak. Aita artzaina nuen eta neuk ere hortxe jarraitu nuen. Nire anai-arreba batzuk ere ardiekin ibilikoak dira.

Eta nora egiten zenituen, bada, kilometro horiek guztiak?

Mañaritik Durangora, handik Muniketa igo, Urrutxu igaro eta Mendatara eta Albizera. Han, inguruko txabola batean egonaldi bat egin eta aurrera! Hurrengo, Gaute-giz-Arteagara eta han ere egonaldi batzuk egin genituen, hamar bat urtean edo. Azkenean, belarra zegoen lekuan geratzen ginen. Gaute-giz Arteagatik aurrera joaten ginen gero, Natxitura, Berezi lez ezagutzen den zonaldera, eta han beste egonaldi bat egiten genuen. Ederra parajea! Lekuan lekuko txabolak edo baserriak alokatzen genituen egonaldiak egiteko.



Bizkerre baserrian jaio eta hazia, gaur egun Mañariko herrigunean bizi da Ercilla.

Zenbat urtez egin zenuten ibilbide hori?

25 bat urtean egingo genuen ibilbide hori. Lehenengoz 16 urteagaz, aitagaz.

Noiz egiten zenuten?

Normalean otsailean irteten genuen. Apur bat lehenago edo apur bat geroago, urte hartako egural-

Orduan ardiei ez zitzaientz pentsurik ematen, eta batzuetan ez zen erraza hainbeste ardirentzat belarra aurkitzea

diaren arabera. Lau hilabete ematen genituen kanpoan.

Bakarrik ibiltzen zinen?

Ez, Adon Ercilla anaiagaz. Biok ibiltzen ginen. Sei anaia eta arreba bi izan gara. Hiru anaia Ameriketara ibili dira artzain. Eta besteek ere ahal zutenean laguntzen zuten.

Txakurrik bazenuten?

Bai, txakurra inportantea da artzainarentzat. Txakurrik ez badaukazu ardiak burla egiten dizu. Alde batetik bestera ibiliko zara, alferrik. Izan ditudan txakur guztiak ez dira onak izan, baina azken urteetakoak bai, denak onak. Urko deitzen da orain dudana. Bere aurretik Sultan, Listo eta Lobi izan nituen. Denak txakur onak.

Beste ibilbiderik bazenuten?

Beste 30 bat urtean Gazteluara joaten ginen. Hori hurrago zegoen. Abadiño osoan ibiltzen ginen belar bila. Badakizu, belarra non gu hara; Orduan ardiei ez zitzaientz pentsurik ematen eta batzuetan ez zen erraza hainbeste ardirentzat belarra aurkitzea.

Orduan gaur egun baino artzain gehiago zegoen?

Benetan ere. Urbiatik eta Aralarretik ere etortzen ziren artzainak euren artaldeekin. Mendatan hainbat urtean egon ziren. Zornotzan ere ezagutzen nuen artzain bat.

Gaztarik egiten zenuten?

Bai, gazta freskoa egiten genuen baserrian. Gero, esnea saltzen genuen eta okelarako ere saltzen genituen Iruñea eta Burgos aldera.

Artzaintza ogibide gogorra dela uste duzu?

Gogortasuna egonaldiak egiteko lekuan arabera. Leku hona bazeneukan, pabilioekin, errazagoa zen. Eta artzain bi behar dira. Batek bakarrik ezin du dena egin. Gaurko jendeak ez du artzain izan gura. Banaka batzuk badaude eta ondo prestatuta gainera, baina gutxi dira.

Izurtzako Etxaburu dorretxea hobeto ezagutzeko aukera, urriaren 30eko bisitan

IZURTZA • J.D.

Gerediaga Elkarteak eta Aldundiak elkarlanean antolatzen duten Ondarearen Europako Jardunaldietako ekimen bat Izurtzan izango da. Urriaren 30ean, domekaz, Etxaburu dorretxea hobeto ezagutzeko aukera emango dute, 11:30ean. Juan Manuel Cembellin historialariak gidatuta, Izurtzako eraikin honek mendeetan izan duen garrantzia ezagutzeko modua egongo da; daukan kokapen berezia, eraikinari buruzko datuak eta dorretxeko jabe izandakoen istorioak, besteak beste.

Ekimen honetan parte hartu ahal izateko, izen-ematea aurretik egin behar da, webgune honetan: www.ondareabizkaia.eus.

Euskal mendizaletasunaren historiari buruzko erakusketa ikusgai Otxandion

Mirugain Mendi Taldearen 50. urteurreneko ospakizunen harira, Otxandioko bolalekuan Mendi Gora erakusketa ibiltaria ikusgai egongo da, urriaren 7tik 12ra bitartean

OTXANDIO • J.D.

50 urte egin dituela ospatzeko, Mirugain taldeak ekitaldi sortekin jarraitzen du. Kasu honetan, Mendi Gora erakusketa ibiltaria ekarriko dute, EMOA Euskal Mendizaletasunaren Museoagaz elkarlanean. Bolalekuan egongo da ikusgai, urriaren 7tik 12ra bitartean. Euskal mendizaletasunean aditua den Antxon Iturrizaren azalpenekin inauguratuko dute, urriaren 7an, 19:00etan. Argazkiekin eta horien gaineko azalpenekin osaturiko 22 panelek osatzen dute erakusketa, eta euskal mendigoizaleen lorpenik garrantzitsuenak erreparatzen ditu. Andresa Landa Fundazioa eta Otxandioko Udala ekimeneko laguntzaileak dira.



Argazkiekin eta testuekin osaturiko 22 panelek osatzen dute erakusketa. EMOA

Autozaintzari buruzko tailerra emango dute, domekan, Mallabiko Kontzejuzarrean

MALLABIA • J.D.

Domeka eguerdian, autozaintzari buruzko tailerra emango dute Mallabian. Nahikari emakume elkarteak antolatu du ekimena eta 12:30ean hasi eta 14:00 inguruan amaituko da, Mallabiko Kontzejuzarra eraikinean. Tailerrean, zainketei eta horiek eragindako karga eta erantzukizunei buruz berba egongo dute, besteak beste. Horrez gainera, osasun mentalarik, norbere burua zaintzeak dakartzan eragin positiboak eta aurrera egiteko beharri buruzko gakoak emango dituzte.

Antolatzaileek jakinarazi dutenez, doako ekimena da eta gura duten denek parte hartu dezakete.

Mankomunitateak Durangoko Elkartegia erostea erabaki du

1,5 milioi eurotik gorako inbertsioa egingo du, ematen dituen ia zerbitzu guztiak bertan zentralizatzeko etorkizunean. Oposizioak "zalantzak" agertu ditu

DURANGALDEA • EKAITZ HERRERA

Hemendik eta 2025era arteko inbertsio plana onartuta, Mankomunitateak Elkartegia erosiko du 1,5 milioi euroko inbertsioa eginda. Modu horretan, gaur egun era sakabanatuan ematen diren zerbitzuak eraikin bakar batean batzea gura du Mankomunitateak. Kokaleku horretatik salbuesita dagoen zerbitzuetariko bat Hiri Hondakin Solidoak batzekoa izango da. Mireia Elkoroiribe presidentea adierazi duenez, inbertsioa "eskualdeko erakundearen aldeko etorkizuneko apustua" da, "jasangarritasuna sendotzeko eta geroago eta administrazio hurbilagoa eta eskuragarriagoa" lortze-

ko. EH Bilduren iritziz, Elkartegia erosi eta "bertan zerbitzu guztiak zentralizatzea ondo legoke, beti ere gaur egungo baldintzak hobetuko balira eta zerbitzua handitzeko aukera egongo balitz". Alde horretatik, zerbitzu guztiek Elkartegian lekurik izango duten "zalantza" agertu du EH Bilduk.

Elkartegia 2004an eraiki zuten eta Durangoko erdigunean dago, Landako Gunearen ondo-ondoan. Eraikina Azpiegiturak SAU enpresa publikoarena da, Bizkaiko Foru Aldundiaren baitakoa. Sotoko solairua, beheko solairua eta bulegoetarako solairu bi ditu. Bertako modulu bik jabetza partikularra dute.



Elkartegia da Mankomunitatearen gaur egungo egoitza nagusia.

Berton Bertokoa eskola jangelen nazioarteko topaketetan egongo da

Dinamikak Italiako proiektu bat gonbidatuko du Bilbora, jangelak era publikoan kudeatzea posible dela erakusteko

DURANGALDEA • EKAITZ HERRERA

Berton Bertokoa dinamikak Bilbon egitekoak diren Gozo jardunaldietan parte hartuko du, eskola-elikadura osasungarria eta iraunkorra lantzeko nazioarteko topaketetan. Zehatz esanda, dinamikako kideek iazko maiatzean ezaguturiko proiektu bat eramango dute bertara: Italiako Sesto Fiorentino herrian (Florentzia, Toscana) martxan dagoen proiektua. Eskualde horren zati diren udalek eskola jangelen kudeaketa publiko egiten dute. Sesto Fiorentino-ko udal enpresak, adibidez, 7.000 menu eskaintzen ditu egunero, bertako ekoizleen produktuekin. Berton Bertokoa dinamikako kideek ispilu lez erabili gura dute Italiako adibide hori, eta horrela-

ko kudeaketa bat ekarri gura dute Durangaldera. "Horregaitik, Sesto Fiorentino-ko enpresako zuzendaria gonbidatu dugu Bilboko jardunaldietan berbaldia ematera. Eta, aldi berean, alderdi politikoak eta ekoizleak gonbidatu ditugu berbaldia entzutera joan eta horrelako proiektuak posible direla ikusi dezaten", adierazi du Berton Bertokoa dinamikako Alex Azpiri kideak.

Eskola-elikadura osasungarria eta iraunkorra lantzeko nazioarteko topaketa urriaren 3tik 5era egingo dute, Bilbon, Euskal Herriko Unibertsitateak Abandoibarran duen Bizkaia Aretoan. Jardunaldien informazio guztia gozo.eus atarian kontsultatu daiteke.

Arabako Lautada ezagutzeko ibilaldi sorta Zornotzan

Udalak *Ibilian Ezagutu* programaren edizio berri bat antolatu du. Zabalik dago ibilaldietan izena emateko epea

ZORNOTZA • EKAITZ HERRERA

Zornotzako Udalak *Ibilian Ezagutu* programaren edizio berri bat antolatu du. Zailtasun maila errazeko eta ertaineko bina ibilbide antolatu ditu. Arabako Lautadako bazterrak arakatzeko ibilaldiak dira guztiak. Honako hauek dira jakinarazitako ibilbideak:

Urriaren 15ean Asparrena aldeira joango dira. 7 kilometroko ibilaldia izango da eta Asparrenako udalerrira osatzen duen herriariko batetik hasiko dute, Eginotik. Ibilbidea harizti eder eta garbietatik igaroko da. Urriaren 22an, Agurain aldera joango dira. Muniain-Muniain irteera egingo dute (11,5 kilometro). Azaroaren 5ean, Zalduondo eta bere inguruak ezagutzeko txangoa egingo dute.

Maila ertaineko ibilbidea izango da (16 kilometro). Historiaz beteriko lur eremuak bisitatuko dituzte, garbi eta garden dauden parajeak zeharkatuta. Azkenik, azaroaren 12ko irteera dago. Kasu honetan, zeharkaldi bat egingo dute Zalduondo eta Zegama (Gipuzkoa) lotuta. Maila ertain-zaileko ibilbidea izango da (17 kilometro). Mendizaleek aspaldiko galtzada zeharkatuko dute, Barnealdeko Done Jakue Bidearen zati dena eta ehunka urtean Konpostelarako erromesek egiten zutena.

Txango guztietara joateko, autobusa Nafarroa aparkalekutik irtengo da, 8:00etan. Irteera bakoitzeko prezioa 8 eurokoa da. Inskribatzeko, Zelaieta zentrorra jo behar da.

Artzainen eta ardi txakurren lana ezagutarazteko jardunaldia Garain

GARAI • EKAITZ HERRERA

Gerediaga elkarteak jardunaldi bat egingo du, urriaren 16an, Garain, gaur egungo artzainen lanaren balioa azpimarratzeko. Gaia ondo ezagutzen duten herritarrek gidatuko dute, artzain lana ondo baino hobeto ezagutzen duten Durangaldeko herritarrek: Aitor Urien artzain abadiñar gazteak, Angel Azkorbebeitia artzain abadiñar beterranoak eta Jose Ramón García Euskal Herriko Artzain Txakurren Elkarteko kideak. Jardunaldian artzainen gaur egungo lana zein den azalduko dute, eta txakurrak euren lanerako zein txapelketetarako zelan trebatzen dituzten erakutsiko dute. Jardunaldia 11:30ean izango da.

PLUSDENTAL

Julio Bernardo Gonzalez doktorea

PSE: 199/17

ODONTOLOGIA DIGITALA
HORTZ-INPLANTEAK EGUNEAN BERTAN, PUNTURIK GABE
ORDENAGAILUZ GIDATUTAKO KIRURGIA
AIRFLOW PERIODONTZIA
SEDAZIO BIDEZKO TRATAMENDUAK

24 ORDUTAN BERMATUTAKO ARRETA

DURANGO
ANDRA MARI KALEA 4
944 008 235 - 688 766 973

GALDAKAO
LAPURDI KALEA 18
944 575 233 - 629 972 088

ESKATU ZURE HITZORDUA BAITA WHATSAPPEZ ERE

Pentsiodunek bankuen "jardunbide txarra" salatu dute Durangon

Urriaren 15ean Madrilen egingo den manifestazioan parte hartzeko deia ere egin dute

DURANGALDEA • EKAITZ HERRERA

Durangoko pentsiodunek manifestazioa egin dute asteon, sukurtsaletako "praktika txarrak" salatze-ko. Pentsiodunek adierazi zuten "protestekin hasi zirenetik hainbat arazo zuzendu" dela, baina gaineratu zuten "oraindino" ez dela behar den moduko zerbitzua ematen. Euren esanetan, gaia hainbat alderditan "hobetu" da. Ordutegietan eta aurrez aurreko arretan, adibidez. "Baina beste batzuetan berdin jarraitzen dute, eta oraindino ere



Asteleheneko manifestazioko argazkia.

urruti dabilta pandemiaren aurreko egoerara bueltatzeko: ez zaie erantzun hirietako landa eremuei eta hiriburuko auzo periferikoei, komisioak kobratzeari, kutxazain automatikoak ixteari edo zerbitzu eskasiari", adierazi zuten. Pentsiodunen mugimenduak jakinarazi zuen lanean jarraituko dutela "erakunde guztiek" euren eskaerak "aintzat har ditzaten". Horrez gainera, Hego Euskal Herriko udaletara mozio bat eramango dute bankuen "praktika txarrak" amaitu daitezzen eskatzeko.

Bestalde, Durangoko pentsiodunek urriaren 15ean Madriler (Espainia) joateko deia ere egin dute. Egun horretan, Espainiako Autonomia Erkidego guztietatik joandako pentsiodunek bat egingo dute han, eta autobus bat ipini gura dute.

Politikan

Neskutz Rodriguez Ormazabal
Herriaren Eskubidea



Ezin badut dantza egin, ez da nire iraultza

Udazkena iritsi da, eta horrekin batera, gehienok egunero-ko errutinara eta arduetara itzuli gara. Atzean geratu dira opor, kontzertu, jaialdi edo atsedeen egunak. Hala ere, durangarrok, ez gara "ofizialki" errutinara sartuko urriaren 24ra arte (San Faustoak amaitzen direnean).

Pandemia global bat eta bi urteko geldidiaren ondoren, aurten, ziur naiz bereziak izango direla. Dagoeneko jaietako gogoia arnasten baita kaleetan. Kuadrilletan elkartuko gara berriro, jende berria ezagutuko dugu, barre egingo dugu, salto egingo dugu eta Euskal Herrian dantzatzeko den ospea badugu ere, dantza egingo dugu, eta asko gainera.

Jaietako egitarauari begiratu eta egun osoan zehar jardura eta kontzertu ugari antolatuko direla ikustea besterik ez da behar. Nagusientzat, helduentzat, gazteentzat eta txikientzat. Egun batzuetan ohituretatik eta portaera-itxaropen konbentzionaletatik askatzeko balio digun giroa egongo da. Azken finean, jaietan "dena baimenduta" dagoela dirudi.

Baina DENA EZ DAGO BAIMENDUTA. Beste urte batez azpimarratu behar dugu eraso matxistarik gabeko jaiegun batzuk nahi ditugula (baita beste urteko egun guztiak ere). Izan ere, eraso horiei aurre egitea erantzukizun kolektiboa da eta, horretarako, denok aktiboki parte hartu behar dugu.

Jaietan ere barre egin nahi dugu, gozatu nahi dugu, dantza egin nahi dugu. Argi daukadalako ezin badut dantza egin, ez da nire iraultza!

Durangaldea asteon

Zaldibarko VI. Aniztasun Eguna ospatuko dute zapatuan, udaletxeko plazan

ZALDIBAR | Zaldibarko Jendeak elkarteak aniztasun eguna antolatu du biharko, festarako eta aldarrikapenak lau haizetara zabalteko eguna. 13:00etan emango diote hasiera egunari, 13:30ean munduko janarien dastatzea egongo da eta 17:00etan munduko dantzak egongo dira. Ekitaldiak udaletxeko plazan izango dira.

Kafe kapsulak birziklitzeko edukiontzia ipini dute Zornotzako Zelaieta zentroan

ZORNOTZA | Zornotzako Udalak kafe kapsulak batzeko edukiontzia ipini du Zelaietan. Juan Mari Ugalde Jasangarritasun eta Zerbitzuetako zinegotziak zehaztu duenez, "azterketek erakusten dute geroago eta kapsula gehiago erabiltzen dugula gure etxeetan, eta, beraz, udaletik haien kudeaketa egokia erraztu gura dugu".

Abadiñoko Geredixa Mikologi Taldeak erakusketa egingo du urriaren 2an

ABADIÑO | Abadiñoko Geredixa Mikologi Taldeak erakusketa mikologikoa antolatu du urriaren 2rako. Erakusketa 13:30ean egingo dute, Errota Kultur Etxean. Egun hau XV. Argazki Lehiaketako irabazleen berri emateko ere baliatuko dute. Argazki lehiaketara aurkezturiko lanak urriaren 17ra arte egongo dira ikusgai, Errota Kultur Etxean.

Gutuna

Iurretako San Migelak

Igandeko Pirritx, Porrotx eta Marimototsen ikuskizunaren harira: azken uneko aldaketa batek baldintzatuta aurrez pentsatuta geneukan plana aldatzera behartuak ikusi ginen. Horrek ondorio batzuk izan zituen antolatzaile eta ikusleengana. Hori dela eta, Jai Batzordeak barkamena eskatu nahi dio momentu horretan minduta, alboratuta eta abar sentitu zen orori. Kontuak gainez egin zigun eta onartzea baino ez zaigu geratzen.

Argi daukagu ikusleen eta ikuskizun emaileen alde egingo dugula beti, kanpotik datozen min emateko diskurtsoen gaitetik.

Beste barik, eginez ikasten dela jakitun, orain arte lez lanean jarraituko dugu, jaiak herritik herriarentzat antolatuz. Gora San Migelak!!!

Iurretako Aitte San Migel Jai Batzordea.

Zure iritzia, gutuna edo fotodenuntzia helarazteko helbideak: Bixente Kapanaga 9, - IURRETA • Izen-abizenak • telefonoa • helbidea • Nortasun Agiriaren zenbakia **DATUOK BARIK EZ DA GUTUNIK ARGITARATUKO** Alderdi, elkarte edo taldeko iritzia kide baten izenean sinatuta eta ANBOToren irizpideen arabera zuzenduta publikatuko dira. Bidalitako testuak ezingo du 1.500 karaktere baino gehiago izan (tarreak barne).

Seguros Bilbao

**RUEDA BILBAO
ASEGURUAK
Jabier Rueda**

Landako etorbidea, 1 DURANGO

ORDUTEGI BERRIA: Astelehenetik ostiralera, 9:00etatik 15:30era

Zenbaki hauetan emango diogu lehen tasuna bezeroari:
946 20 27 10 / 688 86 11 37

Egunero eskainiko dizugu gure arreta ondorengo helbidean:
jrueda@segurosbilbao.com

Arrike
Liburudenda

Kalebarria z/g - Durango
Tel.: 946 201 893
Faxa: 946 816 403

ate irekien jardunaldiak

akuarela tailerra

astean 3 ordu

AKUARELA ERAKUSKETA
+
INAUGURAZIOA

URRIAK 1
10:00etatik
14:00etara

ASTEARTEA, ASTEAZKENA edo OSTEGUNA } 16:00-18:00
17:00-20:00

izen ematea eta info +:
639 052 193

TAILER-LEKU
Zubibarte Kalea 13
Traña-Nations

Info +:
639 052 193
TAILER-LEKU
Zubibarte 13
Traña-Nations

parareda

BURUARI KLIK!



TXIKITIK HANDIRA


Ordenatu itzazu globo hauek txikitik handira.



SEKUENTZIARI JARRAITU

Puntu arrosatik hasita, jarraitu beheko sekuentziari eta irudia lortuko duzu.
Zer izango ote da?

2 → 1 ↘ 1 ↓ 1 ↘ 3 ↓ 2 ↘ 5 ↓ 2 ↖ 2 ↓ 1 ↙
4 ← 1 ↖ 2 ↑ 2 ↙ 5 ↑ 2 ↗ 3 ↑ 1 ↗ 1 ↑ 1 ↗



UDAKO 8. ARGAZKI LEHIAKETAKO irabazleak



**DURANGALDEKO
argazkirik onena**

Epaimahaiaren
saria

Gorka Larrinaga

1



Boto
bidezko
sariduna

Amaia Areitio

2

**Durangaldetik
KANPOKO
argazkirik onena**



Epaimahaiaren
saria

Gemma Uribelarrea

3

Boto bidezko
sariduna

Ireder Angulo



4



'Magallanes y Elcano'

ANTZERKIA Elorrio :: Irailak 30

Magallanesen eta Elcanoren espedizioaren bertsio dibertigarria

Magallanesek eta Elcanok Portugalik hasitako espedizio eza-gunaren bertsio dibertigarria ekarriko du Ajidanha antzerki konpainiak Elorriora, talentu ikaragarria eta gorputzaren kontrol bikaina duten aktore biren eskutik. Nuria Cuadrado eta Pedro Diogok ikuslearen irudimenak hegan egitea lortuko dute. Zilindro metalikoez baliatuko dira, zazpi itsasoetako abentura epikoan esploratzaile laguntza lortuta.

Magallanes y Elcano obra gizon horien bidaia poetiko eta existentziala da, diotenez. Kultura desberdinen arteko ezagutzan eta komunikazioan egindako bidaia, abiatu eta bueltatzen diren bidaiariena. "Identitate-herentzia baten miaketa da, euren kode eta hizkuntza globaletan. Gorabehera, liskar, ondorengotza saio, ezezaguna ezagutzeko bidaia, amets eta beldurrena, gizateriagaz topo egitekoa", diote. Arriola antzokian izango da, 20:00etan.

Irailaren 30ean

IURRETA jaiak

Umeentzako zurezko jolasak, 16:30etik 19:30era, plazan (Euria eginez gero, Kepa Arroitauregi frontoian).

Ginkana, 17:00etan, Etxegon.

Txapelketarako tortillen aurkezpena, 20:00etan.

Erromeria: Lotxo taldea, 20:00etan, Askondoko karpan.

Bertso saioa: Andoni Egaña, Maialen Lujanbio, Amets Arzallus, Unai Iturriaga, Igor Elortza eta Nerea Elustondo, 22:00etan, Kepa Arroitauregi frontoian. Gai jartzailea: Ainhoa Urien.

Baske Street Boys + Edan azken arda dantza + Gora Etorri, 23:45ean, plazan.

ZORNOTZA musika

Galma Boskotea, 20:00etan, Garaitondoko San Isidro basilizan.

Urriaren 1ean

BERRIZ erakusketa

Tomatearen Eguna.

Erakusketa eta dastatzea, 12:30etik 16:00etara. Paella emango dute, 14:30ean, Guzur tabernan.

DURANGO antzerkia

'Suspensión' (Teatro De La Abadía), 19:00etan, San Agustín kulturgunean.

DURANGO tailerra

Konfigurazio-jolasa, haurrentzako tailerra, 12:00etatik 13:30era, Arte eta Historia museoan. Izena ematea 94 603 00 20 telefono zenbakira deituta.

IURRETA jaiak

Mozorro Eguna: Marrazki Bizidunak.

Poteoa Kittu taldeagaz, 12:30ean, herrian zehar.

Herri bazkaria, 14:30ean.

Ondoren, **Bingoa**, Askondoko karpan.

Elektrotzaranga, 18:00etan, plazatik kaskora, eta buelta.

Erromeria: Luhartz taldea, 21:30etik 22:30era, plazan.

Beldur Barik Gunea, 22:00etatik 00:00etara, plazan. 'Ez Ezetz da. Eraso sexistarik ez!'

Erromeria: Luhartz taldea, 23:30ean, plazan.

ZALDIBAR musika

Ezta Ilen + Haatik, 21:00etan, Sorgin tabernan.

ZORNOTZA musika

Kaleko Doinuak, 22:00etan, Matrailu gaztetxean.

ZORNOTZA antzerkia

'Munduari itzulia 80 egunetan' (Glu Glu konpainia), 12:30ean eta 17:30ean, Zornotza Aretoan.

Urriaren 2an

ABADIÑO erakusketa

XXIX. Perretxiko Erakusketa, 11:00etan, Errota kultur etxean. Geredixa mikologia elkarteak antolatuta.

IURRETA jaiak

XXII. Nekazaritza eta

Artisautza Azoka, 10:00etatik 14:00etara, Olaburun.

Dantzari eta agintarien kalejira, 11:00etan, plazaraino.

Dantza saioa, 12:30ean, plazan. Ondoren, **mutil-dantzak soinulari baztandarrekin**,

plazan.

Dantza saioa, 20:00etan, plazan. Zangotzako Rokamador dantza taldeak Otsagabiko dantzak egingo ditu, eta lurretako dantzariak Gorulari dantzak,

Dantzari Dantza eta Erregelak.

Ondoren, jaien errifen zozketa.

Herri afaria eta erromeria

Miren eta Roberto

Etxebarrigaz, 20:30ean, plazan.

Jaien amaiera ohiturazko bertsoak kantatuz, 22:00etan.

Urriaren 2ra bitartean

DURANGO erakusketa

Mikel Hidalgo argazkilari durangarraren argazkiak, Ezkurdi erakustaretoan.

Urriaren 4ra bitartean

DURANGO erakusketa

'Durango- Montevideo' erakusketa, Arte eta Historia museoan.

Urriaren 6an

ZORNOTZA musika

Musika Gertu: Chris O'Leary, 20:00etan, Zelaieta zentroan.

Urriaren 7an

DURANGO berbaldia

'Mujeres, salud y ciencia ¿perjudica la medicina la salud de las mujeres?' (Hizlaria: Amaia Bacigalupe EHuko soziologoa), 18:30ean, Bizenta Mogel liburutegian.

ELORRIO antzerkia

'La verdadera historia de Francisco Franco' (Spectare konpainia), 20:00etan, Arriola antzokian.

ZALDIBAR ipuin kontalaria

Ipuin kontalaria: 'Abentura zirrargarria', 17:00etan (3-5 urtekoak) eta 17:30ean (6-9 urtekoak), Udal Liburutegian.

ANBOTOk agendan ezer iragarri gura baduzu, idatzi agenda@anboto.org helbidera edo deitu **946 232 523** telefonora, eguazten eguerdia baino lehen.

Zinema

:: Durango ZUGAZA ZINEMA

• La chica salvaje

barikua 30: 18:30/21:00

zapateria 1: 18:30/21:00

domeka 2: 17:00/19:30

astelehena 3: 18:00 /20:15

martitzena 4: 18:00 /20:15

eguztzena 5: 19:00

• Smile

barikua 30: 18:30/21:00

zapateria 1: 18:30/21:00

domeka 2: 18:00/20:15

astelehena 3: 18:00 /20:15

martitzena 4: 18:00 /20:15

eguztzena 5: 19:00

• Black is Beltza II: Ainhoa

barikua 30: 18:30


zapateria 1: 21:00

domeka 2: 18:15

astelehena 3: 18:00

martitzena 4: 20:15

eguztzena 5: 18:00



• Fuego

barikua 30: 21:00

zapateria 1: 18:30

domeka 2: 20:15

astelehena 3: 20:15

martitzena 4: 18:00

eguztzena 5: 20:00

• Los buscamos

zapateria 1: 16:45

domeka 2: 16:30

::Elorrio ARRIOLA ANTZOKIA

• Bilboko Film Sozialak Zinema

Ikusezinen Jaialdia

zapateria 1: 20:00

domeka 2: 20:00

astelehena 3: 20:00

::Zornotza ZORNOTZA ARETOA

• Viaje al paraíso

domeka 2: 20:00

astelehena 3: 20:15

• Un héroe samurái

martitzena 2: 17:00

• La isla de Bergman

martitzena 4: 20:15

ARTEA • ARITZ MALDONADO

Jone Ertzilla durangarrak bere lehenengo erakusketa inauguratuko du barikuan. Durango Sor(tzaileen) leku bekaren laguntzagaz egin ahal izan du 'E x 3' erakusketa. Besteak beste, artistek lan egiterakoan "askatasun osoz" lan egin ahal izateak duen eragina azpimarratu du Ertzillak.

Zer da E x 3 (e bider hiru irakurtzen da)? Proiektua beka jaso aurretik zenuen buruan?

Karrera amaitu berritan nengoen beka eskaera egin nuenean, Gradu Amaierako Lana egin berritan. Arte Ederretan, erakusketa bat egitetik hurbilen dagoen lana da GRALA, osorik kontrolatu behar duzu, eta E x 3 hortik dator. Niretzat formula bat da, baina, aldi berean, ez da ezer. Beka eskatu nuenean horrela deitu nion, baina beste modu batera deitu niezaiokeen. Zentzua badu, niretzat etxe bat eta bihotz bat delako da, baina ez da hori. Beste zeozer eraikitzeke erreminta lez erabili dut.

Laguntzen dute Durango Sor(tzaileen)lekuren moduko bekek?

Ni orain dela gutxi hasi naiz, karrera oraintsu amaitu dut eta. Karrera ez zara konturatzen zertan zabiltzan azken urtera arte edo; beharbada ezta gero ere. Askotan gertatzen zait ez naizela gai zertan nabilen azaltzeko; gauzei berbak ipintzen dizkiegu, zertan gabiltzan ulertzen dugula adierazteko. Nik badakit zertan nabilen, baina batzuetan ez dakit zelan azaldu. Egia esan, horrelakoek laguntzen dute, batez ere konfiantzagaz lan egin dezakezunean eta askatasun osoa uzten dizutenean. Eskertzen da, eta horixe izan beharko litzateke lan egiteko era.

Egin dezala berba obrak?

Historian zehar, obrak ikustera koan, diskurtso bat eman zaie, zergaitik aukeratu den kolore bat adibidez, baina ez dut uste kolore horren erabileraren arrazoia jakiteagaitik heldu daitekeenik koadro hori beste modu batera disfrutatzen. Horrek mugatu egiten duela iruditzen zait, eta, batzuetan, ez dela ulertu behar

"Askotan besteak lasaitzeko izaten dira azalpenak, eta nik ez ditut eman gura"

Durangoko Arte eta Historia museoan Jone Ertzilla durangarraren 'E x 3' erakusketa egongo da ikusgai gaurtik aurrera; urriaren 23ra arte bisitatu daiteke



Jone Ertzilla Etxegibel

Artista

DURANGO | 1999

iruditzen zait. Ziurrenik, obraren bat ikustean ez da ezer pasatzen, niri ere gertatzen zait. Baina beste batzuetan zeozer gertatzen da, zeozerk zeharkatzen zaitu, eta uste dut horrek duela benetako garrantzia. Lehen ere esan dut, ni ez naizela gai azaltzeko zergaitik egin dudana gauza bat edo bestea. Zergaitik leihoan? Zergaitik horrela moztuta? Askotan besteak lasaitzeko dira azalpen horiek, eta nik ez ditut eman gura.

Karreraren zein bide aukeratu ez dakizula ibili zinela diozu. Orain bai?

Egia esan, ez dut bide konkretu bat hartu beste batzuek hartu dezaketan moduan. Nik ez dut

diziplina konkreturik, ez dut bakarrera mugatu gura, eta nire inguruan, fakultatean behintzat, inor ere ez dabil ezer konkretua egiten. Elementu batzuk, beharbada, oso barneratuta ditut, eta konstante bat izan daitezke nire lanetan, irudi batzuk adibidez, baina ez naiz lotzen diziplina konkretu batera. Lan asko egiten dut irudiekin, proiektioak adibidez, edo marrazkiak, nahiz eta nik ez marraztu, beste elementu batzuekin ondo geratzen direlako.

Zer ikusiko du museora doanak?

Bideo proiektio handi bi daudela esan dezaket; pegatina asko ere bai, lehen esan dudana irudi handi hori osatzen dutenak. Leihoetako kristaletan ere irudi batzuk egongo dira, kanpotik ikusi daitezkeenak. Gogoan nuen kanpo-barru horma hori apurtzeko, museo kanpotik erakusketaren zati bat ere eskaini ahal izateko horrela, eta aldi berean erreminta lez erabili gura nuen, barruko espazioa iluntzeko baliagarria zitzaidalako. Neurri batean lortu dut, baina ez nire buruan hasiera batean zegoena, izan ere, irudia kanpotik baino ez ikustea gura nuen, eta aldi berean iluntzea gura nuen, baina ez dut lortu material hori inprimatzea. Sarri ideia batez lan egiten duzu, horretan ipintzen duzu atentzio guztia, eta, horrelakoetan, aldi berean zeure burua mugatzen zabiltzala uste dut. Kasu honetan, adibidez, nire buruan zegoen material hori ez lortzeari eskerrak, erakusketak beste zeozer eskaini dezakeela uste dut, hori irabazi dut. Imaginazioa hainbeste erabiltzea ere onuragarria dela uste dut. Bideoekin, adibidez, gauza asko egin dezaket; ohituta nago uni-bertsitateko hango gauzeekin lan egiten, baina honek asko ikasteko balio izan dit.

Natalia Ginzburg, Wirginia Wolf eta Marguerite Duras aipatzen dituzu katalogoan. Zergaitik?

Udan irakurri ditudan idazleak dira. Iruditzen zait eurek hobeto azaltzen dutela nik esan gura nuena; beraz, ondo iritzi nion eurak katalogora ekartzea.

Azarora arte, bost durangarren lanak museoan

Azarora arte, bost artista durangarren erakusketak ikusi ahal izango dira Durangoko Arte eta Historia museoan, guztiak Durango Sor(tzaileen) leku bekekin sarituak. Jone Ertzillaren E x 3 urriaren 23ra arte bitartean egongo da ikusgai. Horren ondoren, Nerea Gastonen *Lavaderos de Barrenkalea*, Karlos Martinezen *Un agujero en el cielo* eta June Baon-

zaren *Ama ta asunak* egongo dira ikusgai. Ismael Iglesiasen *Begizulo* izan zen lehenengoa. "Garrantzitsua da durangarren lanak ere museoan erakutsi ahal izatea", azpimarratu zuen aurkezpenean Garazi Arrizabalaga museoko zuzendariak. Guztira, Durangoko Udalak 16 proiektu kulturali lagundu die bekaren bitartez, 95.000 euro banatuta.

NUKLEO
ileapaindegia

94 658 29 96
Nizeto urkizu 14 behea
48230 Elorrio Bizkaja

hitz artekalea 23, durango
946 810 776
liburudenda info@hitzliburudenda.com

#salduenak

- BAR GLORIA** Nerea Ibarzabal (Susa)
- MUNDUARI BIRA EMAN ZION ONTZIA** Joseba Sarrionandia / Ares (Pamiela)
- BERRIZ ZENTAURU** Katixa Agirre (Elkar)
- M, AMA, EME, UME** Erika Lagoma / Estixu Fernandez (Elkar)
- MIÑAN** Amets Arzallus & Ibrahima Balde (Susa)



Jon Casamayor, Andrea Covadonga, Sara Barroeta eta Leire Ormazabal dira aktoreak.

'Munduari itzulia 80 egunetan' Zornotza Aretoan estreinatuko dute

Asteon aurkeztu dute Zornotza Aretoak abendura bitartean izango duen egitaraua; zapatuan hasiko da, Glu Glu konpainiaren antzezlan berriaren estreinaldiagaz

ANTZERKIGINTZA • ARITZ MALDONADO

Julio Vernerren klasikoetarikoa bat musikal bihurtu du Glu Glu konpainiak: *Munduari itzulia 80 egunetan*. Estreinaldi honeguz ekingo dio Zornotza Aretoak udazkeneko denboraldiari. "Trama nagusia gure errealitatera egokitu dugu. Horrela, munduaren bira berezia izango da gurea, etxetik irten bako abentura. Izan ere, protagonistek etxeko elementuekin eta irudimena astinduz egingo dute bidaia", azaldu du Ugaitz Alegria zuzendariak; Galder Pérez arduratu da moldaketaz. Andrea Covadonga,

Sara Barroeta, Leire Ormazabal eta Jon Casamayor dira aktoreak.

Andoni Agirrebeitia Zornotza-ko alkateak denboraldiaren aurkezpenean kulturak herrian duen garrantzia nabarmendu zuen. "Guk kultura inbertsio lez hartzen dugu, eragin positiboa baitu elkarbizitzan".

Talde zornotzar bi

Bestalde, Ainhoa Salterain Gizarte Ekintza eta Berdintasun zinegotziak egitarauan talde zornotzar biren ikuskizunak sartu izana nabarmendu du. "Familia

osoari zuzenduriko ikuskizun bi egongo dira. Alde batetik, Miren Larrearen Anita Maravillas konpainia Zornotza Aretoan egongo da, datorren urriaren 22an, *Pintto Pintto* antzezlanagaz. Eta Markeliñek *Grand Mamut* lana estreinatuko du, abenduaren 29an". Horiez gainera, La Dramática konpainiaren *Yema* lana azpimarratu du, izan ere, bertan Loli Astoreka aktore zornotzarrak parte hartzen du. Hurrengo hiru hilabeteetan, antzezlanak, dantza ikuskizunak eta kontzertuak egongo dira.

Txapelketa Nagusian aurrera egiteko ia aukerarik barik

Durungaldeko Miren Amurizak eta Gorka Pagonabarragak ez dute ondo hasi Bertsolari Txapelketa Nagusia

BERTSOLARITZA • A. M.

Bertsolari Txapelketa Nagusiko lehenengo kanporaketa biak jokatu dira asteburuan; bigarrenean Miren Amurizak eta Gorka Pagonabarragak abestu zuten, Arrasaten (Gipuzkoa). Bosgarren eta seigarren egin zuten, hurrenez hurren, 646,5 eta 616 puntugaz; bertsolariak puntuazioaren arabera dute finalaurrekoetara igarotzeko aukera, eta, beraz, berriztarra eta durangarra ia aukerarik barik geratu dira aurrera egiteko.

Saioan Joanes Illarregik batu zuen punturik gehien, 646,5, eta, beraz, Elizondoko finalaurrean zuzenean sartu zen. Saioa Alkaizak bost puntu gutxiago lortu zituen, 673. Iñaki Apalategi geratu zen hirugarren (664 puntu), eta Xabat Illarregi laugarren, 659 puntugaz.

Bestalde, Aitor Bizkarra abadiñarrak urriaren 9an izango du txapelketako lehenengo kanporaketa, Lizarran (Nafarroa). Saioa Los Llanos kulturgunean izango da, 17:00etan.



Miren Amuriza, Arrasateko saioan. **BETSOZALE ELKARTEA**

Gai librean

Ondo ez

Ezagutzen dudan inor ez dago ondo. Itxuraz batzuk bai, baina estetika ez da egia. Ezin ondo gaudela esan.

Politikariak, kirolariak, ezagunak, maitaleak, lagunak, familia kontsideratzen dituzunak eta zu zeu ere; bai, zu ere izan zara hautsita edo haustetik urrats erdira. Bestela, orekari trebeenen pare, urrats eta erdira: kirola egunero, terapia hilean behin, urrutira bidai bat urtero, eta astero alkohol/janari/like/match/MDMA/hardcorepunk/sexu/fikzio/apustu/erronka/arropa/nahi dena eskape gisa. Hori nahikoa ez denean lorazepam mingain azpira.

Garai bateko heroinaren pare zabaltzen ari da gaur antsiolitikoa. Lasai denok, anestesista ere anesthesiatuta dago hemen.



Libe Mimenza Castillo
Kazetaria

Garai bateko heroinaren pare zabaltzen ari da gaur antsiolitikoa. Lasai denok, anestesista ere anesthesiatuta dago hemen

Konektatu jendearekin. Hortik baino ez da etorriko norbere&denon enpresa aldaketa

Orain lorazepam. Gero kafe bat.

Segidan irakurri duzu psikiatra baten elkarrizketa: kendu biak, anestesia eta estimulua.

Zentzurik ez duen eguneroko frenetiko bat daramagu, gorputzak ezet egiten digu garrasi —eta demanda—, baina guk eustea dugu helburu. Eustea irautearen sinonimo gisa.

Irautea edo krak.

Ez gaude klinikoki gaixo definizioen ugazabek diotenez. Ondozak jota bizi gara ordea, eta egonezin horrek ez digu uzten bizitzak eroso bizitzen. Ez eusten, baizik eta lasai bizitzen.

Konplexua da sintomatologia eta sistema konplizea.

Has gaitetzen ezagutzen (ez) ditugun guztiekin hitz egiten, partekatzen, zabaltzen. Konektatu jendearekin. Hortik baino ez da etorriko norbere&denon enpresa aldaketa. Baldintzak aldatzea da dagokiguna.

Bizitzea edo krak.

Anboto Kilometro Bertikala indartsu dator bueltan; Euskadiko txapelak banatuko ditu goi mailako korrikalarien artean

Izen-ematea agortu egin da eta kalitatezko korrikalariak datoz; antolatzaileek apurka pandemia aurreko giroa berreskuratzea dute helburu



Aurtengo aldiak 250 parte hartzaile izango ditu.

MENDI LASTERKETA • JOSEBA DERTEANO
2019tik honako etenaldiaren ondoren, pandemia aurretik bizi zen giroa berreskuratzeko animoagaz bueltatuko da zapatu honetan XIII. Anboto Kilometro Bertikala. Korrikalariak euren alea ipiniko dute behintzat, Eus-

kadiko txapelketa izanda dena ematera joango dira eta.

Izen-ematea aspalditik dago beteta. "Pandemiaren ondoren, antza, korrikalariak lasterketa gosez daude. Ilusionatuta daude eta horrek gu ere ilusionatzen gaitu antolatzerako orduan", adie-

razi du Asuntze Mendi Taldeko Aitor Belarrek. Kantitateagaz ez ezik, kalitateagaz ere pozik egoteko moduan daude; Euskadiko txapelak egongo dira jokoan eta maila handiko korrikalariak joango dira. Gizonetan, Asier Larruzeta eta Jabi Goitia, besteak

beste. Emakumeetan, Oihana Azkorbebeitia, Natalia Gómez eta Igone Campos, beste hainbaten artean.

Ibilbidea betikoa izango da: Arrazolan hasi eta Anboto tontorrean amaitu. Puntu batetik bestera 3,8 kilometro daude, 1.092

metroko desnibel positiboagaz. Apur bat aldatuko dena ordutegia da. Normalean baino ordubete geroago hasiko da proba: 15:00etan. Ordu biak goizegi zelakoan eta bazkalordutik gertuegi dagoelakoan apur bat atzeratzea erabaki dute, parte hartzaileen iritzia entzunda. Ondorioz, sari banaketa ere ohi baino apur bat geroago egingo dute, 18:00etan, hain zuzen ere.

Eguraldiari begira

Lasterketarako kontuan hartu beharreko faktore bat eguraldia izango da. Egunean bertan edo aurrekoetan euria egiten badu ibilbidea lokaztuta egongo da, eta, hartara, korrikalari batzuk beste hatzuk baino hobeto moldatuko dira. Ibilbidea astun badago kilometro bertikaleko errekorrak hobetzea gatxa izango dela ematen du, baina Euskadiko txapela jokoan egonda, batek daki. Emakumeetan, honako hau da errekorra: 45.59. Oihana Azkorbebeitia abadiñarrak ezarri zuen, 2018an, 2011tik Oihana Kortazarrek zeukana minutu bat baino gehiagoan hobetuta. 2011tik hona inork hobetu ez duena gizonen marka da. Urte hartan Marco de Gasperi italiarrak ezarritakoak (37.14) indarrean dirau oraindino.

Durangoko duatloi herrikoiak bere ohiko ibilbidea berreskuratuko du domekan

Iaz Ezkurdin bateratu zituzten Mugarraren duatloi herrikoia eta federatua; aurten Santa Anara bueltatu dira

DUATLOIA • J.D.

Mugarra Triatloi Taldeak Durangoko duatloi herrikoia 16. aldia antolatu du domekarako. Iaz, pandemiaren eraginez, Mugarrak antolatzen dituen ekimen nagusi biak —duatloi herrikoia eta federatua— egun berean bateratu zituzten. Ezkurdin hasi ziren biak. Aurten, berriro ohiko data eta lekutara bueltatu dira. Duatloi federatua martxoan egin zuten, Ezkurdin. Bestalde, duatloi herrikoia etzi izango da, Santa Anako plaza erdigune dela.

Umeetatik nagusietara, hainbat lasterketa izango da: haurrena, 10:30ean; haurrek nagusiekin batera egitekoa, 11:00etan; eta helduen proba, 12:00etan. Azken honetako distantziak honako hauek dira: 4 kilometro korrika, 13 bizikle-

tan eta beste 2 korrika. Izen-ematea egunean bertan egin daiteke, 09:00etan hasita. Hiru euro da nagusientzat, eta euro bat umeentzat.

Urri hasiera sasoi aproposa da duatloi herrikoia antolatzeko. Hala xe uste du behintzat MugarraTTko Txela Bereziartuak: "Beste kirol askotako denboraldiak hasi barik edo hasi berritan daude. Orduan duatloia probatzea erabakitzen dute, eta, diotenez, ez ei da dioten bezain gogorra".

Europako txapelketa

Mugarra kirolariak Europako txapelketan aritu direlako ere badira aktualitate. Bertan, Jone Aizpuruak eta Iker Iglesiasek zilarrezko domina irabazi dute Ironman erdian eta triatloi kros proban, hurrenez hurren.



Nagusien duatloia korrika eta mendi bizikletan egiten dute.

Zalduako jokalariek bullying-aren kontrako mezua duten kamisetekin jokatuko dute aurten

SOKATIRA • J.D.

Domeka eguerdian, Zaldua klubak eta nesken harrobia lantzen duen Biak Bat taldeak aurten go aurkezpen ofiziala egingo dute Solobarria futbol zelaian. Ekitaldi horretan, denboraldi berrirako arropa aurkeztuko dute. Nobadade lez, Zalduako kamiseta guztiek bullyingaren kontrako mezua izango dute. Izan ere, klubeko gaztetxoekin gai horren gaineko sentsibilizazio kanpaina egin dute urte osoan zehar.

Kamiseten mezuarena ez da berritasun bakarra izango. Zaldu Kirol Elkarteak 50 urte egiten ditu denboraldi honetan eta futboleko talde nagusiak urteurrenaren harira beren-beregi diseinaturiko kamiseta erabiliko du urte osoan.

Kepa Arroitauregiren oroimenezko txapelketa hasiko dute, gaur, Tornosolon

Gizonen eta emakumeen paleta goman eta eskuz banaka jokatuko dute Tornosolo trinketean



Emakumeen paleta goman 12 pilotari lehiatuko dira.

TRINKETA • JOSEBA DERTEANO

Kepa Arroitauregiren oroimenezko txapelketa hirugarren aldia hasiko du gaur. Arroitauregik hainbeste ordu emandako Tornosolo trinketean jokatuko dira partiduak, barikuetan, 18:30ean hasita. Finalak urriaren 28an izango dira.

Modalitate bitan jokatuko dute: gizonen eta emakumeen paleta goman binaka, eta, gizonen esku pilotan, buruz buru. Paleta goman lau jardunaldi jokatuko dira finalaren aurretik, 12 pilotarigaz.

Gaur, gizonen lehenengo jardunaldian, Durangaldeko pilotari bik osatuko dute bikotea: Mikel García mallabitarra eta

Lau pilotari arituko dira buruz buru; tartean, Asier Aspuru. Aurten ez da Iparraldekorik etorriko

Iker Agirresarobe elorriarrak. Biek Bombin eta Oroz izango dituzte aurkari. Modalitate honetan, Durangaldeak beste ordezkari bat izango du: Durangon bizi den Arrieta gasteiztarra.

Emakumeen txapelketan ere final-laurdenetan hasiko dira. Finalerako bidea urriaren 7ko, 14ko eta 21eko jardunaldietan egingo dute. Denen gainera Ipar Euskal

Herriko palistak dira irabazteko faborito; esaterako, Amaia Larralde hendaiarra.

Azkenik, buruz buruko txapelketan lau pilotarik parte hartuko dute. Euretari bat Asier Aspuru abadiñarra da. Kasu honetan, jardunaldi bi daude: finalerdia eta finala. Aurten ezin izan dute Iparraldeko pilotaririk ekarri. Urri amaieran munduko txapelketa jokatuko da Biarritzen, eta hainbat pilotarik hitzordu hori lehenetsi dute.

Aurreko aldietan lez, Kepa Arroitauregiren balioak ondoen islatzen dituztenek izen bereko saria irabaziko dute.

Mexikoko garaipenagaz, Gurutze Frades animoz beteta joango da Konako munduko txapelketara

Joan zen asteburuan Cozumalگو Ironmana irabazi zuen eta urriaren 6tik 8ra munduko txapelketa lehiatuko du



Frades Cozumalگو helmugan.

IRONMANA • J.D.

Bere ibilbidean seigarrenez, Gurutze Fradesek Ironmanen munduko txapelketan parte hartuko du, urriaren 6tik 8ra, Konan (Hawaii). Eguaztenetik han dago, bertako eguraldira eta baldintzetara egokitzeko. Animoz beteta aurre egingo dio erronkari, joan zen asteburuan Cozumalگو (Mexiko) Ironmana irabazi eta gero. Ez dago garaipenaren modukorik urteko helburu nagusiari gogotsu ekiteko. "Prestakuntzaren azken fasea amaitzeko ezin nuen amaiera hoberik imajinatu", adierazi du triatleta iurretarrak bere sare sozialetan. Mexikon, aurreko

postuetan ibili zen proba osoan. Uretatik laugarren tokian irten eta bizikletan bigarren kokatu zen. Bere indargune nagusia den korrikako saioan lasterketa burua hartu eta inork ere ezin izan zion jarraitu.

Denboraldi berezia

Aurtengoa denboraldi berezia da munduko txapelketa bitan parte hartuko duelako. Izan ere, COVIDaren ondorioz 2021etik atzeratutakoa lehiatu zuen maiatzean, Utah-n (AEB). Bederatzigarren tokian amaitu zuen. Munduko txapelketa batean bere inoizko emaitzarik onena izan zen.

Jokaldia

Berrizko belodromoa

Badator negua, eta horrekin batera euria, hotza... lokatza. Txirrindulariek maillota aldatzen dute, licratik neoprenora, eta horrela hasten dira neguko denboraldia prestatzen. Ildo horretatik, denboradatxo bat daramat buruari bueltak ematen. Izan ere, ziklokrosetik edo MTBetik aparte, pistako lasterketak ere badauzkagu gurean. Eta horri buruz hitz egitea gustatuko litzaidake.

Gaztetxoan nintzenez, Traña-Matienako eskolatik Berrizko belodromora eramaten gintuzten barikuetan. Guk jolas baten moduan hartzen genuen. Pistako taldeko arduradunak, berriz, adizaten genituen, euren taldera batzeko neska-mutikoren bat ikusten bazuten.

Orduan niri ez zidan grazia handirik egin pistak, oso kirol estatikoa iruditu zitzaidan, baina urteak joan ahala,



Eneritz Iturriaga
Mazaga
Txirrindularitza

Begira zelako belaunaldi oparoa daukagu, eta zenbat domina irabazten ari diren askotariko txapelketetan

Egitasmoa gauzatu gero, imajinatu zenbat txapelketa egingo ziren, Euskadi nahiz Espainia mailakoak

gehiago gustatu zitzaidan eta bertako familia ezagutu nuen. Handik etorri dira Ziortza Isasi, Illart Zuazubiskar, Unai Elorriaga, Martzel Elorriaga, Iban Leanizbarrutia... Belodromo batean zaildu dira, itzuliak eta itzuliak ematen, denboraldia hasteko prest egon arte... Nahiz eta beti kanpoko pista batera joan behar, zeren eta Berrizko beldro-

moa ez dago estalita. Azken urteotan, bai Federazioa bai Mankomunitatea lanean dabiltza belodromoa estaltzeko. Bizkaian ez daukagu estalitako belodromorik eta ume asko dauzkagu. Belodromoa aproposa da bizikletari beldurra kentzeko, praktikatzeko... Eta begira, baita, zelako belaunaldi oparoa daukagu gaur egun eta zenbat domina irabazten ari diren Espainiako, Europako eta munduko txapelketetan.

Beraz, eskolek, federazioak eta taldeok lan gehiago egin beharko genuke umeek belodromoa eta pista ezagutu ditzaten. Eta, nola ez, egitasmoa aurrera eramanez gero, imajinatu zenbat txapelketa egingo ziren Berrizen, Euskadi eta baita Espainia mailakoak ere. Eta imajinatu zenbat jende erakarriko lukeen, asko umeak. Eta umeak dauden tokian etorkizuna dago.

Osasun gida



**Profesionalik
onenak zure
zerbitzura!**

 **Odontologia**
RPS: 26/22

viteri
HORTZ-KLINIKA
Konfiantzazko hartz klinika Durango

**DIAGNOSTIKO ZEHATZA EGITEKO ETA,
HORRELA, TRATAMENDU ERAGINKORRA
ETA SEGURUA ESKAINTZEKO BEHAR
DEN TEKNOLOGIA DAUKAGU.**

Ordutegia:
Astelehenerdik ostiralera: 10:00 – 14:00 | 16:00 – 20:00
Larunbata: hitzordua hartuta

944 14 80 36 | 626 18 30 30
Askatasun etorbidea 15, 48200 Durango, Bizkaia
www.clinicadentalviteri.com

 **Optometria**
PSE: 162/13

**Naia
Zabala
Azumendi**
11587 kol. zk.

keinu

- Optimetria teknika aintzindariak
- Kontaktologia • Haurren ikusmena
- Ikusmen terapia • Erreflexu primitiboak
- Syntonic fototerapia • SENA estimulazio neuroauditiboa • Orto-k

Arkaz 3 • 48240 Berriz • Tel.: 94 622 50 99
www.keinuoctmetriazentroa.com

 **Podologia**
PSE: 148/13

**PAUSOZ
Podologia
klinika PAUSO**

Goiaz Murua
kol. zbk. 147
Ainhoa Elorza
kol. zbk. 238
Nerea Rodriguez
kol. zbk. 329

Kiropodia, onikopatia, alterazio dermatologikoak eta ibilerako alterazioak
Telefona: 946203630
Monago Torre 4, behe 48200 durango

 **Fisioterapia**
PSE: 57/16

pablo zubizarreta
fisioterapia & osteopatia

**Muretatorre, 2D
DURANGO**

pzubizarreta@gmail.com
946 550 049 - 695 784 963

 **Odontologia**
PSE: 145/13

clínica dental hartz klinika
b. unamunzaga e. etxebarria

ODONTOLOGIA OROKORRA · INPLANTOLOGIA
KIRURGIA · ORTODONTZIA OHIKOA (DAMON) ETA
IKUSEZINA · ODONTOPIEDIATRIA · PADI
HORTZETAKO ESTETIKA
HORTZETAKO ESKANERRA (ITERO ETA CBCT)

{ Muretatorre, 2C blokea, behe -
48200 Durango }
Tel.: 946 819 951 - Mug.: 717 194
454uecdental@gmail.com

 **Estetika**
PSE: 16/09

AGIRRE KLINIKA
MEDIKUNTZA ESTETIKOA
www.medicinaesteticaDurango.com

Obesitatea-zelulitisa, Laserra:
depilazioa, barizeak, tatuajeak behin
betiko kentzeko laserra..
Adinaren kontrako tratamenduak:
orbanak, botoxa...

Txatxiena, 6 / 48200 - DURANGO
Tel.: 946 810 387

 **Fisioterapia**
PSE: 119/13

Zainduz

**FISIOTERAPIA
OSTEOPATIA**

Ane Legorburu Munitxa

**Trañabarren 13, 4. blokea
behea eskuma
MATIENA-ABADIÑO**

944 657 132 - 686 906 374



Botikak

BARIKUA, 30 · 09:00-09:00

ETXEBARRIA MONTEVIDEO
ETORB. 2. - DURANGO

IRUARRIZAGA, KARMELE SAN
MIGUEL 15 - ZORNOTZA

09:00-22:00

SANCHEZ, MIREN ITZIAR URBITARTE
POLIGONOA, 4 P8 - ABADIÑO

SARASKETA, DIEGO LUIS
URRENGOETXEA 5 - ZORNOTZA

ZAPATUA, 1 · 09:00-09:00

BAZAN DIAZ URIBARRI 5 - DURANGO

GUTIERREZ, IBAN TXIKI
OTAEGI 3 - ZORNOTZA

09:00-13:30

ETXEBARRIA MONTEVIDEO
ETORB. 2. - DURANGO

DE DIEGO INTXAURRONDO
22. - DURANGO

GAZTELUMENDI J.A.
ABASOLO 2 - DURANGO

SARRIA SASIKOA 17, DURANGO

CAMPILLO MONTEVIDEO
ETORB. 24 - DURANGO

NAVARRO ARTEKALEA 6 - DURANGO

UNAMUNZAGA MURUETATORRE
2C - DURANGO

BALENCIAGA EZKURDI
PLAZA 8 - DURANGO

LARRAÑAGA-BALENTZIAGA
BERRIO-OTXOA 6 - ELORRIO

FARMAZIA MATIENA
TRAÑABARREN 15. - ABADIÑO

IRUARRIZAGA, KARMELE SAN
MIGUEL 15 - ZORNOTZA

RUIZ, JUAN EL ALTO-BIDE
ZAHAR 14 - ZORNOTZA

MELERO, ROSA MARI SAN PEDRO 31
- ZORNOTZAGOIRIA, MARI CARMEN
SABINO ARANA 6 - ZORNOTZA

09:00-14:00

IRIGOIEN BIXENTE
KAPANAGA 3 - IURRETA

09:00-22:00

SANCHEZ, MIREN ITZIAR URBITARTE
POLIGONOA, 4 P8 - ABADIÑO

SARASKETA, DIEGO LUIS
URRENGOETXEA 5 - ZORNOTZA

DOMEKA, 2 · 09:00-09:00

DE DIEGO INTXAURRONDO
22. - DURANGO

GUTIERREZ, IBAN TXIKI
OTAEGI 3 - ZORNOTZA

09:00-22:00

SARASKETA, DIEGO LUIS
URRENGOETXEA 5 - ZORNOTZA

ASTELEHENA, 3 · 09:00-09:00

SAGASTIZABAL ASKATASUN
ETORB. 19 - DURANGO

GUTIERREZ, IBAN TXIKI
OTAEGI 3 - ZORNOTZA

09:00-22:00

SANCHEZ, MIREN ITZIAR URBITARTE
POLIGONOA, 4 P8 - ABADIÑO

SARASKETA, DIEGO LUIS
URRENGOETXEA 5 - ZORNOTZA

IRUARRIZAGA, KARMELE SAN
MIGUEL 15 - ZORNOTZA

MARTITZENA, 4 · 09:00-09:00

MUGICA ANDRA MARIA 9 - DURANGO

GUTIERREZ, IBAN TXIKI
OTAEGI 3 - ZORNOTZA

09:00-22:00

SANCHEZ, MIREN ITZIAR URBITARTE
POLIGONOA, 4 P8 - ABADIÑO

SARASKETA, DIEGO LUIS
URRENGOETXEA 5 - ZORNOTZA

IRUARRIZAGA, KARMELE SAN
MIGUEL 15 - ZORNOTZA

EGUAZTENA, 5 09:00-09:00

BALENCIAGA EZKURDI
PLAZA 8 - DURANGO

GUTIERREZ, IBAN TXIKI
OTAEGI 3 - ZORNOTZA

09:00-22:00

SANCHEZ, MIREN ITZIAR URBITARTE
POLIGONOA, 4 P8 - ABADIÑO

IRUARRIZAGA, KARMELE SAN
MIGUEL 15 - ZORNOTZA

Zorion Agurrak

ZORIONAK@ANBOTO.ORG · EGUAZTENeko 14:00AK ARTEKO EPEA



GOZATU GOZOTEGIA

Hamabostean behin jasotako
zorion-agurren artean **tarta bat**
zotz egingo dugu.

Zozketan parte hartzeko bidali
kontaturako datuak zorion-agurrekin
batera.

Ermodo, 11 DURANGO

Tel.: 946 201 663

661 40 14 00

gozatudurango@gmail.com

Gozatu Gozotegia

gozatugozotegia



Zorionak, **Eukene!** Asteburu ederra
izan dagizula zure urteguna ospatzen.
Mosu handi bat izaro, Ekain eta etxeko
guztion partez.




Urriaren 4an Durangaldeko ile-
apaintzaile onenak urteak egiten
ditu. Ospatu zuk dakizun bezala!



Zorionak Berrizko **Oihan Narbaiza**
Aldekoari. Ondo ospatu zure egune.
Besarkada bat familiaren partez.
Egurre!



Zorionak, **Anetxu!** Oso ondo pasatu
zure urtebetetzean! 9 urte ez dira
egunero betetzen! Maite zaitugu!
Muaaa



Zorionak, laztana! 5 urte gure txikiak!
Muxu handi bat familiaren partez.

Eguraldia

ZAPATUA ↓ 23° / 9° ☀️

ASTELEHENA ↓ 25° / 12° ☁️

EGUAZTENA ↓ 25° / 12° ☀️

DOMEKA ↓ 24° / 9° ☁️

MARTITZENA ↓ 26° / 12° ☀️

EGUENA ↓ 24° / 13° ☁️

Eskelak



**Anton
Uberuga Zabala
'Txatue'**

Mallabian, 2022ko irailaren 28an
12.urteurrena

Hegoak ebaki banizkio
Nerea izango zen,
Ez zuen alde egingo.
Bainan, honela
Ez zen gehiago txoria izango
Eta nik...
Txoria nuen maite.

Etxekoak.



Eskelak jartzeko: 946 816 558
edo anboto@anboto.org

Eskela mota guztiak

- Anboto paperean + anboto.org-n: 100€
(Anboto txartela dutenentzat 90€)
- Paperean: 60€ (Anboto txartela dutenentzat 50€)
- Webgunean: 60€ (Anboto txartela dutenentzat 50€)

"Zaldibarrera etorri nintzenean kotxe bakarra zegoen, Licorne hori eta beltza"

Loren Egurennek 102 urte egin ditu irailaren 5ean, osasun inbidigarriagaz. Elorrioko Torre baserrian jaio zen eta sei urtegez Pullara baserrira bizitzera joan zen, Zaldibarrera



Loren Eguren Amiano
102 urte bete ditu
ELORRIO | 1920

ZALDIBAR • AITZIBER BASAURI

Zealeko etxaurrean beti dago baten bat, Lorenek dioen moduan, eta hantxe egin dugu hitzordua beragaz. Elorrioko Torre baserrian jaitokako 10 neba-arrebetatik hirugarrena da Loren. Sei seme-alaba ditu, 14 iloba eta 20 birloba; azkena uztailean jaioa. Eta, hiru iloba kenduta, denak bizi dira Zaldibarren. Sintomarik barik pasatu zuen COVID-19a, ekainean, eta tentsiorako pilula baino ez du hartzen. Solasaldira batu diren Marian, Rosi eta Ana Mari alabek azaldu dutenez, etxeko ortuan aitzurragaz ibili da Loren 98 urte bete arte, eta ilea zuritu ez dadin ile-apaindegira joan da iaz arte. Orain, Marian alaba joaten zaio etxera apaintzera, barikuro.

Zer behar da 102 urte egiteko?

Lan asko egitea, ur gutxi edatea eta legatzik ez jatea. Lan asko egitea tokatu zaizu. Bai, lan egin behar zen. 14 urtegez umezain joan nintzen, Bergarara. Zortzi ume zaintzen nituen. Eta hori baino lehenago, Elorriora ere jaisten nintzen umezain, kalera. Bergarako ume haien seme-alabak bisitan etortzen dira oraindino, urtero. Gerora, fruitu landare haztegi lan egindakoa ere bazara, hainbat urtean. Bai, Bergaran bost urte egin nituen eta, gero, Zaldibarrera Zengotitamera etorri nintzen, neskame; hiru ahizpa etorri ginen. Bertan bizi ginen eta haien haztegi ere lan

egiten nuen. Orduan ezagutu nuen senarra, Tomas. Zeleakoa zen eta hara ezkondu nintzen. Zelea baserrian ere fruta-landare haztegiak zituzten. Bada, ezkondu eta gero ere jardun izan dut. Denean lan

Bergaran zaindutako umeen seme-alabak etortzen dira bisitan, urtero, Zeleara

egin dut; harategian txerria hiltzea ere tokatu zait. Hari eusten egoten nintzen. Orain telebistan ikusten dugu gerra, baina zuk gerra bizi izan zenuen.

Bai. Elorriotik Aramaiora irin bila joaten ginen errotara, gauez. Orduan, kontrabandoa zen hori. Eta irin horregaz amak ogia egiten zuen etxean. Asto bat geneukan, txikia, beltza, eta haregaz joaten nintzen. Aita baserrian geratzen zen. Eta amak premia zutenen artean ere banatzen zuen ogia, isilean. Ate ondoan izten genuen ogia. Begien aurrean dut oraindino asto hura; errotara bidea ikasita zuen eta beste batzuei izten genien errotara joateko. Behin, milizianoak ere sartu ziren eta oiloak eraman zituzten oilotokitik. Amak atzetik jarraitu zien, oiloak hartzeko. Aita argina zen, Toledoko katedraleko atea egin zuen. Errosarioa errezatu barik ohera ezin zela joan zioen.

Gerra garaian, Elorriotik Aramaiora irin bila joaten nintzen errotara, gauez. Orduan, kontrabandoa zen hori

Egunero irakurtzen duzu egunkaria.

Egunkari osoari egiten diot begirata, eta eskelak dira egia bakarra. Bazkaldu aurretik irakurtzen dut. Bazkaldu eta gero, siesta eta etxe inguruan pasiada egin eta gero, beste begiratu bat ematen diot. Eta afalostean albistegia ikusten dut telebistan. Athleticen partiduak eta pilota partiduak ikustea ere gustatzen zait. ANBOTO ere irakurtzen dut.

Gaur egun korrika eta estresatuta bizi gara. Asko aldatu dira sasoiak.

Jendea korrika dabil beti, inora ez ailegatzeko. Zaldibarrera etorri nintzenean kotxe bakarra zegoen, Licorne horia eta beltza. Zenbat kotxe dauden orain, ene! Eta lanerako oraingo arropak izan bagenu... Eskuetan galtzerdi zaharrak ipinita lan egiten genuen Zengotitanean. Zelea aurrean garia zegoela ere gogoan dut. Auzolanean, lantzean behin baserri batean, garia jotzen zen orduan. Tresneria Zelean gordetzen zen.

Zaldibarko amama esaten dizute.

Bai, zer esango dute, ba! Zeleako agurea hemen (irribarrez).

Lauhortza

Bixente Aizpurua Eguren
Irakaslea/ Jubilatu



Zilarrezko ezteiak

25 urte luze igaro dira Elorrioko Marianistetan irakaslea izandako Manolo Martínez apaizaren deiari erantzun ahal izateko Kainabera Gobernu Kanpoko Erakundea (GKE) sortu genuela.

Eusko Jaurlaritzaren laguntzari esker jarri genuen martxan gure lehen proiektua; Bogotan, Kolonia, Danubio Azul ikastetxea eraiki eta martxan jartzea. Horren atzetik beste asko burutu ahal izan ditugu Bogotan bertan: ume, emakume eta aitona-amonei laguntzeko zenbait ekintza bultzatuz. Momentu honetan proiektu horiek aurrera jarraitzen dute.

Nikaraguan ere osasunari loturiko proiektu desberdinak ditugu martxan eta etxe dui-nak ere eraikitzen ari gara.

Garai batean Afrikara eta Errusiara ere luzatu genuen gure laguntza.

Hemen bertan Zaporeak, Harrera, Aspanovas eta Elikagai Bankuarekin lanean gabiltza.

Proiektu sorta hauek bultzatu ahal izateko ezinbestekoa izan da eta da herritar askoren laguntza, eta, nola ez, Eusko Jaurlaritza, Elorrioko eta Mallabiko udalak tarteko.

25 urte hauetan asko izan dira Kainaberatik pasa diren lagunak, horien guztien artean bereziki Isa Novoa azpimarratu behar. Urteetan bera izan zen gure presidentea, gure motorra eta erregaia, beti edozertan laguntzeko prest zegoena. Dagoen tokian dagoela bihotz-bihotzez denon esker ona.

Esker hori laguntzen gaituzuen guztioi luzatzen dizuegu eta gurekin lan egin nahi izanez gero Iturri Kultur etxean espero zaituztegu.

Ikusi arte



Gure aukerak,
zuretzat onenak!

Saldu, erosi, trukatu, oparitu... EUSKARAZ!